


TOKIKOM

2021eko apirila | 214. zenbakia

# aiKor!

txorierrito adizkaria



Ianire Sagasti  
Artista

MaiteFrankoHelduenHezkuntzaMirenBasaras



# Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



**Bidali ALTA**

**747 406 561**  
telefono zenbakira

**Izan zaitez berriemate ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.**

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).

-  4 Eretxiak
-  5 Laburrak eta albisteak
-  11 Itxialdia
-  12 Gurean izan da... Maite Franko, ipuin-kontalaria
-  14 Gaztea eta... Antxon Intzaurtza, musikaria
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Helduen hezkuntza
-  20 Ianire Sagasti Ruiz, artista
-  25 Miren Basarasi elkarrizketa
-  28 Gure merkatariak
-  31 Zu argazkilari
-  32 Herbarioa
-  33 Emaus
-  34 Lezama: udaletxe eta eskola zaharrak
-  35 Aikorrizketa
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda



18 Helduen hezkuntza



34 Lezama: udaletxe eta eskola zaharrak



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



diruz lagundutako aldizkaria



**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa (Lagatzu, Zorriketan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35  
aikortxori@aikor.com /  
www.aikor.eus



**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea  
**Kolaboratzaileak:** Imanol Alvarez, Maitane Apodaka, Itsasne Zubiri, Txiribita, Oskar Gaztelu eta Raul Bañuelos

**Zuzentzaileak:** Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Estitxu Perez (688 782 642)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Iratxe Pirla

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 8.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik

## Mundua ikasgela batean

**F**ilosofia errealitatetik jaiotzen errealitate batera bueltatzeko. Egiari zor, premisa bietatik bat ere ez betetzeko fama dugu, ordea. Baina horrek ez du aldatzen beharko lukeena, eta horretan saiatzen gara batzuk gure klaseko errepublika txikian; IKEAren ez bezala, interdependientea gurea.

Fikziozko ikasketa-bidaia: denen eskura ez dauden proposamenak tartean, eta polemika mahai gainean. Baztertu ala bozkatu? Edozein aukera da zilegi: demokrata zintzoen betebeharraren emaitza onartzea (askatasun indibidualari lehentasuna ematen dioten hautua), edo guztien eskura ez dauden aukerak joko kanpo uztea, berdintasunik gabe funtsean ez baitago askatasunik (ekitate-zaleena). Eskuina eta ezkerria, ezkerria eta eskuina dantzan. "Zergatik uko egin behar diet nire desireri?", kexaka agertzen dira lehenak; "Ez guztiei; zati bati", erantzuten dute bigarrenak, "Zuek hori egin

ezean, beste batzuek ezingo dute ezta joan ere egin".

Baina korapiloa eskalarekin batera handitzen denez, errealitateira eraman nahiko nuke gogoeta; globala den mundu honetara alegia. Zeinek uko egin nahi dio ametsetako auto horri, mueslian mangoa jartzeari edo mundua ezagutzeari? Baina zein da horren harremana batzuen miseriekin? Erraza: esplotaturik gabe ez da existitzen beste aldea. Langile mugimenduak erraztatutakoa alfombra azpian ezkutatu du globalizazioak. Hirugarren mundua da orain gure fabrika. Bilboko itsasadarraren ibaiertzak hurbilegi zeuden zapalduak ez altxatzeko; Dakar eta Paris ez hainbeste aldean. Pentsatu nahi dut urrunekoa ikusten ez dutenen konplizitate inkontzientez baimendu dugula gurpil honek bueltak ematen jarraitzea.

Baina, zer egin? Non dago hau? Batea? Miraririk ez gure artean. Gutxiagorekin bizi beharko, gehienak duintasunera



**IMANOL ALVAREZ,**  
*Filosofia irakaslea*

heltzeko. Inozoa litzateke erosotasunen balioa ukatzea, zoriona erosahalmenaren mende dagoela pentsatzea bezain inozoa. Nahiak beharizan bihurtzearen atzerako bidea zailagoa da, ordea. Neurri zehatzak hamaika, baina zangoa gogorik gabe inora heltzen ez bada, aisialdi eta zorionaren birplanteamendu batekin hasi beharko da bidea. Marxismoari buelta falta izan zitzaion Marcuseren esanetan. Paradoxikoa da aukera mugagabeen merkatu librean zorionaren eredu bakarra izatea erakuslehoan, gurpila bueltaka mantentzen duena.

## Kateak apurtzen

**J**akina da geure eguneroko errendimenduan norbere itxaropenak duen eragina. Are gehiago, horri buruzko lehen kondaira antzinako mitologia grekoan aurki dezakegu. Pigmalion eskultore ezaguna izan zen, berak sortutako eskulturaz (Galatea) maitemindu zena. Hain zen indartsua sortu zitzaion sentimendua, non azkenean beste jainkosa baten laguntzarekin eskultura izaki biziduna bilakatu zen. Itxaropenak grinez beteta izaten direnean, errazagoa da haiek betetzea. Irudikatu dezagun zirku batean dagoen elefante-kume txikia, katez lotuta izaten dutena. Lehen



**MAITANE APODAKA**  
*Lehen Hezkuntzako irakaslea*

egunetan elefanteak ahalegin guztiak egingo ditu bertatik askatzeko eta ihes egingo. Baina saiakera horiek guztiak alferrikakoak direla ikustean, amore emango du. Urteak aurrera egin ahala, elefantea tamainaz handituz joango da, indar handiagoa izango du eta katea apurtzeko gai izango da. Hala ere, aurreko saiakeretan ezer lortu ez duenez, eta denbora luzez ikasi duen babesgabetasunaren ondorioz, kateei lotuta bizitzen ikasiko du. Denok izan gara elefante hori, eta guztiok sentitu ditugu kate horiek. Baina geure aukera da kateekin bizitzea ala kateak apurtzea.

**ArtileArtean**  
Mungialde, 4 - DERIO  
946 240 343 / 665 702 751  
www.artileartean.com

**LOREGARBI** GARBIKETA ZERBITZUAK  
Garbi-itxialak, osoak  
Auzokorren komunitateak  
Mantutako garbi-itxialak  
Bulgoak eta lotakak  
Ostia amariako garbitzak  
Baserokak  
Zabur bilatu

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekoa Tel: 94 406 49 92  
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443  
loregarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93

**Sondigarbi**  
**GARBITEGIA**

ITURRIGANE, 2 EGUNERO  
635584941 8:00-22:00

## Ibilbide didaktikoa Akarlandan, Bizkaiko baso-ondarea ezagutarazteko



Bizkaia Egiten strategiaren baitan, Bizkaiko Foru Aldundiak ibilbide didaktiko bat sortuko du Akarlandan (Erandio), Bizkaiko baso-ondarea zaintzeko eta herritarrei ezagutzera emateko. Ibilbide horretan 12 zuhaitz landatuko dira, bertoko landaredia izango dutenak, hala nola pagadiak, hariztiak eta artadi kantauriarra.

Foru Aldundiak azaldu duenez, Akarlanda Martintxuneko mintegitik gertu dago eta horregatik erabaki da ibilbidea bertan atontzea: azken urteotan landare-materiala bildu da mintegi horretan, 106 espezie autoktonotako landareak landatzeko asmoz. Horrela, ibilbidea modu zirkularrean diseinatu da, Martintxunen

hasi eta amaitu dadin. Hortaz, bisitaldia bukatzeko, baso-espezie batzuk nola landatzen diren azalduko da eta tailerrak ere izango dira.

Ibilbideak 1.560 metro izango ditu eta hartan Bizkaiko zuhaitz-espezie nagusiek eta euren ondoan hazten diren beste batzuek osatzen dituzten hainbat landaredi-mota ikusi ahal izango dira; modu horretan, Bizkaiko landaredi-sistemak birsortuko dira: esaterako, pagadi-, harizti- eta artadi-motak, haltzadi kantauriarrak eta sahastiak. Gainera, bai euren fruituengatik, bai zur-ekoizpenengatik Bizkaian asko landatzen diren espeziak ere izango dira ibilbidean.

## Telematikoki ordaintzea

Derioko Udalak bat egin du Eusko Jaurlaritzaren "Nire ordainketa" ordainketa-pasabidearekin, eta, hortaz, derioztarrek hemendik aurrera zerbitzu hori erabilia ordaindu ahal izango dituzte helbideratu gabeko ordainagiriak, banketxera edo udal-bulegoetara joan barik. "Zerbitzuak ordainketa doan eta modu seguruan egitea ahalbidetzen du", adierazi dute.

Udalaren esanetan, zerbitzuarekin bat egin dute "administrazio elektronikoari bultzada berria emateko askoz". Horrela, derioztarrek ordainagiriak urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan ordaindu ahal izango dituzte ordainagiriak. "Pasabidearen funtzionamendua oso erraza eta intuitiboa da. Ordainketa telematikoa egiteko, ordaindu beharreko ordainagiria eta banku-txartel bat eduki behar dira, datuak webgunean sartu, txartela erabilia telematikoki ordaindu, eta, banku-erakundeak ordainketa onartu ondoren, ordainagiria deskargatu", adierazi dute.



**ÍTACA**  
Psikologia zentroa



**Ixone Beitia Lobato**  
Osasun-psikologoa  
Elikadura-portaeraren nahasmenduak  
☎ 622 126 791



**Johanna Beato Ardila**  
Osasun-psikologoa  
Sexu- eta bikote-terapeuta  
☎ 608 421 173

Larrabari 1, Derio

### Ordutegia:


Astelehenetik barikura: 09:00 – 21:00  
Zapatuetan: 09:00 – 16:00

### ZERBITZUAK:

Umeen, nerabeen eta helduen terapia  
Bikote-terapia  
Sexu-terapia

Konfiantzako gunea, zure emozioak  
eta ongizatea berriz aurkitzeko.

Baliabideak eskuratu, egunerokotasunean ondocoza  
ekartzen dizuten zailtasunei aurre egiteko.



## Igerilekuak zabaltzea Derion eta Larrabetzun



Derioko aire zabaleko igerilekuak ekainaren 12an irekiko dira eta irailaren 12ra arte izango dira zabalik. Larrabetzun, bestalde, ekainaren 19an zabalduko dituzte igerilekuak. Udal bakoitzak bere kontingentzia-plana zehaztu du pandemia dela eta.

Derioko igerilekuetan hiru txanda egongo dira, eta 300 lagunentzako lekua (edukieraren % 50); txanda batetik besterako tartean desinfektatze- eta garbitze-lanak egingo dira. Txandako ordutegia hau da: 11:00etatik 13:45era; 14:00etatik 16:45era eta 17:00etatik 20:00etara. Abonua udal-kiroldegian hartu ahaliko dira uztailaren 28ra arte; gainera, eguneko sarrera hartzeko aukera egongo

da. Izen ematea udal kiroldegian bertan egin ahaliko da. Zalantzak argitzeko, 944 540 159 telefono-zenbakira deitu daiteke, edo kirol@deriokoudala.net helbide elektronikora idatzi.

Beste aldetik, Larrabetzuko igerilekuak ekainaren 19an zabalduko dira. Igerilekuen edukieraren % 50 erabiliko da, eta bi txanda antolatu: 11:30etik 15:30era eta 16:00etatik 20:00etara; txanden arteko tartean desinfektatze- eta garbitze-lanak egingo dira. Abonua ekainaren 1etik 30era bitartean eskuratu ahaliko dira frontoian, eta ez da eguneko sarrerarik egongo. Hitzordua hartzeko, 944 558 276 telefono-zenbakira deitu beharko da.

## Zozketa egin dugu WhatsApp taldearen harpidedunen artean

Txorierriko albiste garrantzitsuak eta azken ordukoak mugikorren jasoetako aukera duzu. Horretarako, ALTA hitza idatzita, whatsapp mezua bidali behar duzu 747 406 561 telefono-zenbakira. Egunero albiste bat bidaliko dizugu eta, gainera, zuk ere bidali ahaliko dizkiguzu herriko albisteak, argazkiak eta bideoak. Bestalde, alta egiten duzuen artean bi lagunentzako bazkaria, Baserri Antzokian, zozkatuko dugu hilero. Maiatzeko zozketa egin dugu eta irabazlea Olatz Porto izan da. Zorionak!



## Loiuko jaiak bertan behera



Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean idatzi duenez, aurten San Pedro jaiak ez ospatzeko erabakia hartu du udalak. "Erabakia aho batez onartu dugu udalbatzan ordezkariak ditugun alderdiok, EAJk eta EH Bilduk".

Begoñak idatzitako postean jaso ditu Ainhoa Tubet kultura zinegotziaren hitzak. Horren arabera, Tubetek azaldu du gaur egungo egoera dela-eta ez dagoela

berme nahikorik ekintzak segurtasunez ospatu ahal izateko. "Gastronomiari, kirolari, kulturari, musikari... lotutako 60 ekitaldi baino gehiago izaten ditugu jaietan eta jendetza batu ohi da ekitaldietan. Hortaz, arduraz jokatzeko jarraitu behar dugu, eta osasun-irizpideak errespetatu". Tubeten esanetan, "loiuztarrek ez ditugu ulertzen paellarik, herri-bazkaririk edota kontzerturik gabeko jaiak eta momentu

honetan ezinezkoa da ekintza horiek egitea". Horri lotuta, baztertu du hiruzpalau ekintzak osatutako jai-egitaraua egitea. "Gure ustez, ez lirakeke jaiak izango eta, gainera, ezin dira herriko jaiak iragarri, baina gero ekitaldi nagusirik ez egon". Loiuko alkateak webgunean jakinarazi duen moduan, "jaietara bideratu ohi den diru-partida erabiliko da herritarrei laguntzeko".

**UDA KO  
IKASTARO  
TRINKOAK**  
LabayruFundazioa

**DERIOKO SEMINARIOAN**

**B2 eta C1 prestatzeko ikastaroak**

**295 €**

**Uztailaren 5etik 17ra**

\* Aurretik **sarrera-proba**  
\* Ikastaroa gaindituta,  
**HABE** azterketak (B2/C1)  
egiteko eskubidea  
\* 16 urte betela

**BILBON** ere bai:

- Boluetan/C.Larreategin
- Ek.21-uzt.3 | Uzt.5-17
- Mola guztiak (betua/bizk.)
- EusTET (euskara planak)

**Matrikula zabalik** (plaza mugatuak)

944 437 684 labayru@labayru.eus

  
LabayruFundazioa  
www.labayru.eus

## Aurrez grabatutako elkarrizketen zerbitzua eskaintzen du EGAZ Txorierri

Hautaketa-prozesu batean parte hartzen duten pertsonen curriculumari buruzko galderei erantzun ahal diete, eta, grabazioa amaitu ondoren, enpresek bideoa ikusi ahaliko dute, EGAzen webguneko "enpresen estranet" atalean sartuta. "Horrela, enpresek hobeto ezagutu ahaliko dituzte hautagaiak", adierazi du Enplegu eta Garapen ekonomikoko zerbitzuak. "Modu azkarrean eta eraginkorrean, pertsonen talentua azpimarratzen da. Era berean, hautagaien gaitasun profesionalak, prestakuntza eta esperientzia eza-gutzeaz gain, haiek eremu pertsonalean zelan moldatzen diren ikusteko aukera ematen zaie enpresei".

## Magalarte Zamudio txakolina aukeratu dute ongintzako kanpaina baterako

Bilboko Rotary Clubak polioaren aurkako txertaketa-kanpainak sustatzen ditu hirugarren munduan, eta 2015etik hona Bizkaiko Txakolina Jatorri Deiturako txakolin bat aukeratzen du kanpaina horietarako dirua biltzeko. Jatorrizko deituraren webgunean jakinarazi dutenez, Kontseilu Arautzaileak eta Rotary Clubak Magalarte Zamudio txakolina aukeratu dute aurten, haren komertzializazioaren bidez kanpainari laguntzeko. Orotara 18 txakolin aurkeztu ziren dastatzera, eta Iñaki Suarez eta Asier Dañobeitia txorierriarrak izan ziren sommelierrak artean.

## Zamudioko Udalak herritarrei laguntza eskatu die Asiako liztorren habiak identifikatzeko



Zamudioko Udalak Asiako liztorren hedapena eteteko kanpaina berria hasi du, "mehatzua direlako frutarako, erleen-tzat eta inguruko intsektuentzat". Horrela, udal-brigadako langileak tranpa ekologikoak jartzen dabilta, "liztor erreginak hartu eta ugal daitezela ekiditeko". Udalak laguntza eskatu die herritarrei, habi primarioak identifikatzeko eta talde espezializatuek horiek kendu ditzaten.

Udalak jakinarazi duenez, garagardo beltza, ardo zuria eta ahabi-ura nahastuta egiten dira tranpa ekologikoak; nahasia ontzi batean sartzen da. Usainak erakarrira, liztorrak ontzi barruan sartzen dira, eta ito. Tranpak aurreko urteetan habiak topatu diren guneeetan ipintzen dabilta. "Normalean erreketatik gertu ipintzen dituzte habiak, 500 metroko inguruan". Udalaren esanetan, "tranpa ekologikoei

esker, habien zenbatekoa murriztu da azken urteotan".

Bestalde, udalak herritarrengana jo du Asiako liztorren habia primarioak identifikatu eta kendu ahal izateko. "Garrantzitsua da liztor erreginak martxo eta ekainaren bitartean eraikitako habi primarioak aurkitzea, izan ere, lehenik bertan ugaltzen da; ondoren, bigarren mailako habiak egiten dira udazkenean, batez ere zuhaitzen adarretan edo teilatuetan. Azken habi horiek handiak dira; primarioak, ordea, txikiagoak. Herritarren laguntza beharrezkoa da habia primarioak kentzeko: habiarik topatuz gero, udalari jakinarazi behar zaio, bertan Asiako liztorrik dagoen egiaztatzeko". Habia leku arrisku-tsu batean badago, suhiltzaileek kenduko dute handik; bestela, Basalan enpresak izango du ardura.

**yedra floristas**

Mikel Zarate, 2 · 48150 Sondika · Bizkaia  
Telefona: 94 453 14 57 · yedrainterflora@hotmail.com

**auzoKide**  
Finken administratzailea

**LORENA GAMBOA AGUIRRE**

Txoriso 4, behea B 634 410 470  
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

**Enaitz**  
TABERNA

Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak

94 455 42 15  
Garaloitza, 74  
48196 Lezama



## Sei medaila Beste Birarentzat

Master kategorian, Beste Bira Loiu atletismo klubeko korrikariek sei medaila lortu zituzten Euskadiko Atletismo Txapelketan, Durangon, urre bat, hiru zilar eta brontze bi. Garaipena bikoitza izan zen: atleta bakoitzarena eta taldearena.

Eduardo Manzanosek, Javi Allende-k eta Jon Irazustak lehenengo proban (800 m) hartu zuten parte eta hirurek izan zuten lekua podiumean, izan ere, urrezko domina, zilarrezkoa eta brontzezkoa eskuratu zuten hurrenez hurren. Manzanos eta Allende 1.500 metroko proban ere aritu ziren eta lehenak brontzeko domina lortu zuen, eta bigarrenak, zilarrezkoa. Bestalde, aipatu beharra dago biek Espainiako Masters Txapelketan parte hartuko dutela ekainean, Malagan. Azkenik, Javier Agirrek zilarrezko domina eraman zuen abiadura-proban (200 m).

"Klubak lanean jarraitzen du Txorierrin atletismoa adin-tarte guztietan bultzatzeko", azaldu dute sustatzaileek. Klubean 60 atleta baino gehiago daude. "Datorren urteari begira, ahalegina egingo dugu hobetzen jarraitzeko eta gure lana Txorierriko gainerako udalerrietara zabaltzeko". Entrenamenduak Larondon eta Derion egiten dituzte gaur egun.



## Nagusien Etxea berritzeko lanak, Derion

Derioko Udalak jakinarazi duenez, hilaren amaieran hasiko dira Nagusien Etxea berritzeko lanak. Udalak 270.000 euro baino gehiago ipiniko ditu lanetan eta aurreikusitako horiek lau hile iraungo dutela.

Azaldutakoaren arabera, alde batetik, insonorizazio-lanak egingo dira, lokalaren akustika hobetzeko eta zarata kanpotik ez entzuteko; bestetik, lokaleko instalazio termikoak (klimatizazioa eta aireztapena) berritu egingo dira, energia aprobetxatzeko eta COVID-19ak eragindako osasun-neurri berrietara egokitzeko. Era berean, lokalaren irisgarritasuna hobetu egingo da, haren barruan dauden bi altuerak kenduko direlako. Lekua ere guztiz egokituko da jarduerak behar den moduan egin ahal izateko: lekuaren banaketa, akaberak eta estaldurak, altzariak eta ekipamendu berria.

"Adinekoei eta derioztar guztioi poza ematen digu proiektuak. Udala harro dago gure inguruan erreferente den lokala edukitzeaz, zeinean, sozializatzeari gainera, Derioko adinekoei zein bizilaguneei gozatu

ahal duten", esan du Esther Apraiz alkateak. "Gure adinekoei euren beharrianetarako lokal egokia edukitzea nahi dugu".

The logo for "enviser" features a large green checkmark above the word "enviser" in a bold, sans-serif font.

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3, 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

The logo for "RADIO TAXI FEMADE" features a stylized green and red leaf-like shape above the text "RADIO TAXI FEMADE". To the right, it says "Zure taxi, Teorierikoa".

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESCARGA APP-A



TAXI FEMADE

## Ureztatze-sare berria Lezaman

Ureztatze-sistema automatiko berria Euskaldun Berria plazako lorategietan ipini da, Haurreskola inguruko lorategietan eta udaletxe inguruko lorategietan. Lanetan 20.700 euro ipini ditu Lezamako Udalak. Lanak udalerriko lorategiak eta berdegueak zaintzeko kontraturen baitan daude. Kontratuak 2017an sinatu, eta aurten amaituko da.



## Lehen Aukera programa

Programak gazte langabetuak kontratatzea sustatzea du helburu. Praktikaldiko lan-kontratuak izan daitezke, edo lan-kontratu mugagabeak. Praktikaldiko lan-kontratu bakoitzeko 8.480 eurorako dirulaguntza jaso daiteke, eta lan-kontratu mugagabe bakoitzeko, 13.970 eurora artekoa. Eskerak urriaren 29ra arte egin daitezke. Informazio gehiago EGAZ Txorrierrin: [ipintor@txorierri.eu](mailto:ipintor@txorierri.eu); 944 536 370 telefono-zenbakia.

## Summer Bonuloiuak, herriko merkatariari eta ostalariei laguntzeko



Udari begira, Loiuako Udalak beste bonu-kanpaina bat ipini du martxan. Orotara, 2.000 bonuloiu kaleratuko dira eta pertsona bakoitzak gehienez bost eskuratu ahaliko ditu. Bonuloiua 10 euroan ipiniko da salgai, baina benetako balioa 20 eurokoa izango da; aldea udalak ipiniko du. Herriko 19 establezimenduk egin dute bat ekimenearekin.

Bonuloiuak ekainaren 1etik aurrera erosi ahal izango dira udaletxean bertan, goizean, edo hara deituta eskatzeko arratsaldean Zabaloetxeko liburutegian edo Larrondoko frontoian uzteko. Bonuloiuak ekainaren 1etik irailaren 15era arte gastatu ahal izango dira herriko dendetan, ta-

bernetan eta jatetxeetan.

Josu Andoni Begoña Loiuako alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, ekimenak hiru helburu ditu: alde batetik, pandemiak herriko merkatariari eta ostalariei ekarritako kalteak arintzen laguntzea; bestetik, herritarrak deskontuez baliatzea; eta azkenik, herria girotzea. Loiuzarrek ez ezik alboko herrietako bizilagunek ere eskuratu ahal izango dituzte bonuloiuak. Lehenengo 500 erosleek poltsa bat jasoko dute opari. Begoñak azaldu duen moduan, aurretik egindako kanpainari eta udako kanpainari esker, guztira 40.000 euro helduko dira herriko establezimenduetara.

 **Carrefour**  
express

**ORDUTEGIA**  
Astelehenerdik ostiralera arte  
9:00-14:30 / 17:00-20:30  
Larunbatean  
9:00-14:30

Pago kalea, 5  
48170 ZAMUDIO

**Alaia**  
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua  
Bertoko produktuak

Talleri, 5  
48170 Zamudio  
94 485 05 85



 **ZAMUDIO**  
Loteria Nacionala

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
[josuastorkiza@gmail.com](mailto:josuastorkiza@gmail.com)

ZAMUDION BERTAN GAUDE

 **BAIRES**  
Higienizazioa eta ingurumen-garbitzea

Alberto Gainza:  
691606715

[info@baires.org.es](mailto:info@baires.org.es)  
[www.baires.org.es](http://www.baires.org.es)

 **PELUKERIA**  
ESTETIKA  
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU  
Tel. 944 558 144

Orrialde honetan, Itsasne Zubiri sondikoztarrak konfinamenduak inspiratutako margolan-saila aurkeztuko digu.



Jendea badator, jendea badoa, inmigrazioa, emigrazioa, bizi garen munduaren ezaugarria, desoreka. Pandemian ere beharizanak boga-boga.

**Ae-apaindegia**  
M<sup>a</sup> Antonia Llodio <sup>TXPI</sup>  
Txorienko etorbidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**GORBEIA MERTZERIA**

Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 06

**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Baserriko ogia  
Bizkotxoak  
Hambat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

**ASTIKENEMOTOR**  
www.ASTIKENEMOTOR.com

**DERIO - 946 451 781**

**HARATEGIA  
ALBERTO**

Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO

# “Sekulako pribilegioa da ipuinetik bizi izatea”

MAITE FRANKO | ipuin-kontalaria

Maiatzaren 2an Bullyingaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen, eta handik egun batzuetara Maite Frankok (Irun-Hondarribia, 1971) *Bullyinga, hori mina!* ipuin-kontaketa ekarri zuen Zamudiora. Frankorekin ipuinez eta ofizioaz aritu gara.

t: Itxaso Marina Ondarroa

## Helburuari heltzen zaio ipuinaren bidez?

Umeak berehala jabetzen dira egoeraz eta, kasu honetan, berehala identifikatzen dituzte erasotzailea eta biktima. Gerta daiteke jazarpena hasieran barregarria suertatzea eta erasotzailearekin bat egitea, horrek indarra, boterea... duelako; hala ere, istorioan sakondu ahala konturatzen dira haiek ere biktima izan daitezkeela, eta biktima izatea zein mingarria den. Horrek, nire ustez, biktimaren aldeko bihurtzen laguntzen die. Ez dakit hausnarketa egiten duten, baina nik esango nuke zer bait heltzen zaiela.

## Umeei edozein gauza azaltzeko tresna da ipuina?

Lagungarria da, ipuinaren formatua eta hizkuntza, berez, oso erakargarriagoak direlako haietzat. Ipuin pertsonalizatuak idazten ditut. Behin ama batek eskatu zidan ipuina idazteko semeari azaltzeko ez zuela aitarik eta intseminazio artifizialaren bidez sortu zela. Eskerak erabat harritu ninduen hasieran, baina idatzi nuen eta guztiok azaldu ginen emaitzarekin pozik. Hortaz, saiatu daiteke. Euren gordintasunean, gai tabuak, heriotza tartean, modu goxoan azaldu daitezke ipuinen bitartez. Askotan, gurasook beldur handia diogu hainbat gairi buruz hitz egiteari, eta ipuinak baliabideak dira.

**Horri lotuta, hezkuntza-programak sortu dituzu, eta ipuinez gainera, material pedagogikoa ere osatu; Berdinola programa kasu.**

Zarautzen, Hernanin... herriz herri dabilen programa da eta berdintasuna,

*“Euren gordintasunean, gai tabuak modu goxoan azaldu daitezke ipuinen bitartez”*

kulturartekotasuna, errespetua... lantzen ditu; ezberdintasuna onartzea, azken batean. Batzuetan zaila izaten da, izan ere, umei hainbat gairi buruz hitz egiten diegu eta baliteke oraindik jaso edo sortu ez dituzten estereotipoak helaraztea. Aukeratu behar da: itxaron umeak gai zehatz batez aritzeko jakitun izan arte ala aurreko lana egin, aurreiritziak zehaztu gabe, baina hainbat balio landuz: berdintasuna, enpatia, errespetua... Ez da erraza, baina ipuinak laguntzen du. Aitatasuna lantzeko, esaterako, ipuin bat kontatzen diet Lehen Hezkuntzako bigarren mailako eta DBHko bigarren mailako ikasleei, eta benetako umea dirudien panpina erabiltzen dut. Panpina ikusten dutenean, mutilek barre egiteko joera dute, baina istorioa entzuten ondoren, mutil askoren jarrera aldatu egiten da: panpina besarkatzen dute, musua ematen diote... –bueno, orain COVID-19a dela-eta beste modu batzuk topatu behar ditugu–. Helburua da mutilak konturatzea haiek ere aita izango direla, eta panpinak horretan entrenatzeko sortu direla.

**Helduentzako saioak ere egiten dituzu; zein da nagusien jarrera ipuinekiko?**

Orokorrean, ipuin-kontaketa ez da erakargarria helduentzat. Nolanahi ere, herrietan programazio erakargarriak eta txukunak egiten direnean, egia da “parro-



kianoak-edo” saioetara etorri ohi direla. Talde zehatzak sortzen dira eta haien ki-deak zaletu egiten dira. Aldez aurretik jarrera ona izaten dute ipuinarekiko; euskaltegi-taldeak ere hor daude... Umeen eta nagusien arteko ezberdintasun nagusia da umeak askoz gardenagoak direla eta berehala dakizula erakarri dituzun ala ez. Helduok, berriz, oso onak gara maskara jartzen. Gainera, batzuek ITV azterketa-edo egiten dizute: ea honek zer kontatuko digun orain, nondik joko duen... (kar- kar). Bestalde, askotan taldeak esker onekoak izaten dira, adibidez erretiratuak, eta gehienbat emakumezkoak izaten dira ikusleen artean; gizonezkoak erakartzea askoz gehiago kostatzen da.

*“Berehala dakizu umeak erakarri dituzun ala ez; helduok oso onak gara maskara jartzen”*

**Pedagogia ikasi zenuen, aktore ibili zara, irakasle, idazle, irratan... Eta 2004an erabaki zenuen ipuinetik bizi nahi zenuela. Zergatik? Alderdi horiek guztiak uztartzeko modua da?**



Galtzagorri literatura elkartean ibili nintzen baja bat betetzen, eta haurren eta gazteen literaturara hurbildu nintzen. Ipuin-kontalariak kontratatzeko ardura nuen eta konturatu nintzen neuk ere ilobei barra-barra kontatzen nizkiela ipuinak. Gainera, aktore ibilia nintzen, txikitan amak ere istorio asko kontatzen zizkigun, ipuin asko entzunda nituen... eta pentsatu nuen hau niretzako lana izan litekeela. Beraz, kontratua amaitu zitzaidanean buru-belarri sartu nintzen ipuin-kontalari. Azken batean, aipatutako alderdi horiek nahiko lotuta daude elkarri, eta, beste alde batetik, argi nuen umeekin lan egin nahi nuela.

#### **Nolakoa da ipuinetik bizi izatea?**

Lan ederra da, oso polita eta sekulako pribilegioa. Hala ere, ikusten ez dena ere gordina da: kilometro asko errepidean eta horrek dakarren arriskua; baldintza ekonomikoak ere konplikatu samarrak izan daitezke, autonomoak garelako; inoiz ez dakigu hurrengo hilabeteen zehatz-mehatz zenbat saio izango ditugun... Eta COVID-19a, gainera, hekatonbea izan da guztiontzat. Ziurgabetasun handi-handi hori alde batera utzita, oso lan polita da, eta esker onekoa, jendearekin aurrez aurre egotea gustatzen bazaizu. Saioa amaitu eta ume bat zu besarkatzera

etortzea baino ordainketa politagorik ez dago, nire ustez. Behin batean, taldeko ume guztiek amaitu zuten nire gainean eta zera pentsatu nuen: honela hiltzen banaiz, zoriontsu izango naiz! (kar-kar).

*“Saioa amaitu eta ume bat zu besarkatzera etortzea baino ordainketa politagorik ez dago”*

#### **Zein izan da zure bilakaera profesionala?**

Hasieran oso-oso antzezlaria nintzen: mozorroak, traste pila bat, ipuina bakarriketa bihurtzen nuen... Baina, gero eta apaindura gutxiago erabiltzen dut denboraren poderioz. Alde batetik, erronka gisa erakargarria iruditzen zaidalako; eta bestetik, hausnartu nuelako txikitan amak ipuinak nola kontatzen zizkigun: ahotsa, gorputza, begiak... bakarrik erabilita. Zaila da ahazkotasuna etxeetan topatzen, askotan jatorduak eta pantaila aurrean egiten ditugu eta. Nire iritziz, oso inportanteak dira bazkalosteko eta afalosteko tarreak, baita lotara joan aurrekoa ere. Pentsatzen dut ikuspegi ebolutibotik izugarria dela gizakia gauza izatea hitz soiletatik irudiak sortzeko; oso aberasgarria da eta hitzak lehenasuna izan beharko luke. Bestalde, niri magikoa iruditzen zait: umeak berandu ailegatzeko dira eskolatik, eta gehienetan eskolaz kanpoko ekintzak ere izan dituzte, etengabe hizketan dabilen beste heldu baten aurrean esertzen dira... eta, hala ere, adi-adi izaten dira, ondo pasatzen... Magia da hori; super botere bat banu moduan sentitzen naiz.

#### **Eta nolakoa da pandemia-garrian ipuin-kontalari ibiltzea?**

Egia esan, niri berehala eskaini zidaten bideoak grabatzeko aukera, eta, horri esker, biziraun nuen udara arte. Gero, udan saio presentzial batzuk egin nituen, kalean, eta irailean poliki-poliki hasi ziren ikastetxetako saioak ateratzen. Nik aurrez aurreko emanaldiak nahia-gogoditut, baina bideoa beste espe-

rientzia bat da; pertsona gehiagorengana ailegatzeko aukera ematen du; eta baliagarria da norberaren burua zuzentzeko. Aurrez aurreko saioei dagokienez, ohiko segurtasun- eta osasun-neurriak hartu behar dira: distantzia, musukoa, objektuak eta mozorroak erakutsi daitezke, baina ez erabili... Gertutasuna galtzen da; halere, aldi berean, umeak hainbeste denbora izan dira ipuinik gabe, non gogo bizia duten.

*“Umeak hainbeste denbora izan dira ipuinik gabe, non gogo bizia duten”*

#### **Ondo baino hobeto hasi duzu 2021a, beraz.**

Lan piloa dut udara arte. Gainera, Euskadi Irratian kolaborazioak egiten ere hasi naiz, eta *Goazen!* teleailean ibili naiz aktore. Datozen hilabeteetan zer etorriko den ez dakit, baina espero dut kulturgingtza gauden guztion egoera normaltzea.



# “Batzuetan badirudi agintariek ez dutela gure lana serio hartzen”

ANTXON INTXAURTZA | musikaria eta soinu-teknikaria



Hogeita lau urteko lezamarra Sakatu elektrotxarngaren eta Mamagigi's musikaren partaidea da eta, gainera, soinu-teknikari dabil lanean. Ikaslea ere bada, eta azterketa-garaian harrapatu dugu bete-betean. Lanpetuta dabil azkenaldian; hala ere, tartetxoa atera du gure galderei erantzuteko. Nola ez, musika izan dugu solasaldiaren ardatz nagusi.

t: Itxaso Marina Ondarroa

**Azterketak-eta buru-belarri prestatzen harrapatu zaitugu. Zer ikasten zabilta?**

Txikitatik izan ditut oso gustukoak musika eta soinua. Duela bi urte hasi nintzen ikus-entzunezkoetarako eta ikuskizunetarako soinua ikasten, eta ia bukatu nuen. Goi-mailako zikloa bukatu, eta pandemiak harrapatu gintuen. Panorama ikusita, irudi eta soinuko goi-mailako zikloa egitea erabaki nuen eta, egia esan, oso pozik nago

hartutako erabakiarekin, ezagutzen ez nituen hainbat gauza ikasten ari naiz eta.

**Irratian ere bazabiltza. Non? Zertan?**

Vinilo FM irratian egiten dut lan. Soinuko lehen ikasturtean nengoela, lagun batek eman zidan han ordeko teknikari moduan sartzeko aukera, eta hurrezker bertan egiten dut lan, berarekin batera, soinu-teknikari eta bideogile moduan. Irrati txikia izan arren, gauza asko ikasi ditut, oso baliotsuak etorkizunerako.

**Musikaria ere bazara; Sakatu elektrotxarngaren eta Mamagigi's taldeko kidea, hain zuzen.**

Musikaria... ez dakit, bada! (kar-kar). Aspalditik nabil Sakatu elektrotxarngarekin Euskal Herriko txoko guztiak astintzen: hasiera batean, trikitia jotzen nuen, baina gaur egun, gitarra. Pena handia izan da elektrotxarngarik eta kontzerturik gabeko uda motela pasatu izana, eta oraindik horren moduko beste uda bat izango dugu aurretik... Baina itxaropentsu gabiltza eta argi dugu pandemiak ez gaituela hilko: patxaranak ezin izan badu, are gutxiago pandemia batek! (kar-kar). Bestalde, aipatu bezala, Mamagigi's taldeko kidea ere banaiz. Orain dela pare bat urte, taldeko gitarra-jole eta abeslarietako batek taldea uztea erabaki zuen, eta inoiz egin didaten eskaintzarik onena egin zidaten nire lagun maiteek: taldekidea izatea! Gaur egun ez gaude oso aktibo hainbat gauza direla eta; hala ere, disko berri bat grabatzea dugu helburu, prisa barik (kar-kar). Bestalde, beste musika-proiektu batzuetan nabil sartuta, eta laster horren berri izango duzue.

**Zerbait aurreratuko diguzu?**

Reggae inguruko proiektua da, baina oraindik ez dago erabat finkatuta.

**Nola hasi zinen musikan?**

Trikitia jotzen ikasi nuen lehenengo eta behin, baina gitarra jotzea beti gustatu izan zait. Hamalau edo 15 urterekin hasi nintzen gitarra jotzen: Angus Young nuen erreferente; hala ere, berarengandik oso urrun nagoela uste dut (kar-kar). Bizpahiru hilean eskola jaso zuen, baina azkenean erabaki nuen nire kabuz jarraitzea, akademietako ikaste-dinamika ez zitzaidalako gustatzen. Sakatu elektrotxaranga izan da nire lehen proiektu serioa; haren aurretik lagunekin jo arren, ez genuen talderik-edo

*“Oraindik iazkoaren moduko beste uda bat izango dugu aurretik, baina itxaropentsu gabiltza”*

sortu; gozatzeko baino ez genuen jotzen.

### Oso proiektu ezberdinak dira Sakatu elektrotzaranga eta Mamagigi's taldea.

Lagunek eta biok hainbat musika-mota entzun ditugu: rocka, txikitan; punka edota ska, gaztaroen... Euskal Herriko gazte gehienek moduan (kar-kar). Countrya (Mamagigi's) eta ska (Sakatu) berdinak ez badira ere, bakoitzak bere xarma du eta bizitzaren momentu ezberdinetan sortutako proiektuak dira: momentu ezberdin bakoitzean gure musika-erreferenteak aldatuz joaten dira, eta proiektu bakoitza momentu ezberdin horien emaitza dira.

### Musika arloan, nola bizitzen zabilta pandemia?

COVIDak gogor astindu ditu musika eta horren ingurua, eta oraindik denbora beharko dugu normaltasun osora bueltatzeko. Sakatu elektrotzarangaren zein Mamagigi's taldearen kasuan, urtebete baino gehiago da ez dugula kontzerturik egin: ez dugu uste gaur egungo neurriak eta guk publikoari eskaini nahi diogun ikuskizuna bateragarriak direnik; nahiago dugu itxaron. Hala ere, ez dugu datorren

udan kontzerturen bat emateko aukera guttiz bazterten. Bestalde, entseguen kontua ere asko aldatu da. Entseguak Txio aretoan egin ditugu beti, Mankomunitateak Derioko Larrabari baserrian duen entsegu-lokalean. Lokalaren materialaren eta tresneriaren berritzea dela eta, tirabirak izan ohi ditugu Mankomunitatearekin, lokala oso zahar dagoelako eta materialak 15 urte baino gehiago dituelako. Iaz, pandemia baino lehenago, aurtengo aurrekontua zero eurokoa izango zela esan ziguten arduradunek; eta hori gutxi balitz, lokala iazko martxotik dago itxita. Behin eta berriz eskatu dugu gaur egun indarrean dauden neurriak errespetatuz lokala zabaltzeko, baina erantzun digute ezinezkoa dela, beren ustez, ezin direlako neurriak bermatu. Txorierriko kiroldegia, kultur etxeak, liburutegiak eta beste guztiak publiko batzuk zabalik daudela kon-

*“Gaur egungo neurriak eta publikoari eskaini nahi diogun ikuskizuna ez dira bateragarriak”*

tuan hartuta, uste dugu arraroa dela hori erantzutea. Ez dugu Mankomunitatearen aldetik interes handirik ikusten, aretoa zabaltzeko eta gaur egungo neurrietara moldatzeko; espero dugun bakarra da lokala zabaltzea, Txorierriko taldeek behar dutelako.

### Nola etorriko da uda, zure ustez?

Iazkoaren antzekoa izango dela pentsatzen dut. Ulertzen dut egoera honetan ezin direla kontzertuak eta ikuskizunak era masiboan egin, baina kultur arloari buelta eman behar zaio, teknikari, musikari eta pertsona askok bizimodua kulturatik ateratzen dutelako. Urtebetetik gora daramagu egoera honetan eta gauzak ez dira asko aldatu; jasotako laguntzak oso eskasak eta irrealak izan dira. Teknikarion sindikatuaren sorrera lagungarria izan da aspalditik datorren egoera latza azaleratzen, baina, hala ere, ikusten dugunez, ez da nahikoa. Atzerrian dauden lagunek esanda, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan laguntza hobeak dituzte. Hemen, berriz, baldintza asko bete behar dira, kulturako langile askorentzat irrealak direnak, ez dagoelako nolabaiteko hitzarmen zehatzik kulturako langileentzat eta teknikariontzat. Batzuetan badirudi agintariek ez dutela gure lana serio hartzen.

### Soinu-teknikari ibilia zara irratitik kanpo?

Kontzerturen batean ibili naiz soinu-teknikari, baina kultura gelditu zenetik irratian baino ez dut egiten lan. Irratian bideoak grabatu eta editatu ere egiten ditut: azkena The Flying Rebolos eta Fastuosos De La Ribera taldeen bideoa izan da, Burning taldearen “Mueve tus caderas” abestia jotzen; Vinilo FM irratia ideia izan da.

### Zer plan dituzu?

Buruan hainbat proiektu ditugu musika arloan. Estudioan ibili gara gauza berriak sortzen eta espero dugu kontzertuak eta jaiak ahalik eta lasterren bueltatzea, denbora honetan sortu dugun musika plazaratu ahal izateko eta musika dagokion lekura itzuli dadin.

*“Kulturari buelta eman behar zaio, teknikari, musikari... askok bizimodua handik ateratzen dutelako”*



**Hemen prestakuntzak lana dakar berarekin**

**POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI S.COOP.**  
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional  
Lanbide Heziketa eta Bideren Ikasketuzarako Kontsekoa

Unitzaga Ibaia Kalea, 1 | 48160 - DERIO | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierra.net  
Fax: 94 403 40 61 | www.txorierra.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

**BATXILERGOA**  
• Zientziak Batxilergoa

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**  
• Mekanizazio Teknikari

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**  
• Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari  
• Produktzio Programatzeko Goi-mailako Teknikari  
• Automatizazio eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari  
• Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari  
• Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari  
• Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

**40 urte, milaka txori**

# Jokoaren arriskuak

Azkenaldian, kirol apostuetako etxeen, kasinoen eta abarren publizitate bonbardaketa iraunkorra bizitzen ari gara. Gazteek edozein mugikorretatik eskura ditzakete zailtasun handirik gabe. Horrek kezka sor dezake familiengan, izan ere, ebidentziaren arabera, ausazko jokoetan goiz hasteak nabarmen areagotzen du jokoarekiko mendekotasun arazoak izateko arriskua.

Jokatzen duten pertsona guztiek ez dute mendekotasun arazorik izango; batzuek denbora pasatzeagatik egiten dute, noizean behin, lagunekin, ondo pasatzeagatik,... Eta gauza berria ere ez da, jokoak historikoki lagundu digu-eta. Antzinako Txinan apustuak egiten ziren, baita azteken pilota jokoan edo erromatar zirkuan ere, eta garai guztietara egokitu da. Gaur egun edonon ikusten ditugu apustu-etxeak, arraspak edo sare sozialetako apustularien komunitateak.

Pandemiak ez du online jokoaren azken urteetako goranzko joera geldiarazi. Azken datuen arabera, kirol apustuek osasun krisiaren ondorioak nabaritu zituzten arren, erabiltzaileek jokatutako diru-kopuruak errekorra lortu zuen iaz.

Online bideo-jokoei ere arreta eskaini behar zaie, entretenimendu modu ohikoa baita, eta ikus-entzunezko aisialdirako lehen aukera da, batez ere haur eta nerabeen artean. Horiei ausazko elementuak gehitzen zaizkie, adin goiztiarrean apustuekiko eta jokoarekiko interesa sor dezaketena. Apustuak itxurazkoak dira, eta fitxa trukagarriak dituzte opariekin edo kutxa-botinekin. Horrela, ausazko joko moduko bat bihurtzen da, eta apustuen alderdi formalak ikasten dituzte.

## Baina zergatik dira hain problematikoak?

Ausazko apustuen eta jokoen eskaintza oso zabala da, eta eguneko 24 orduetan daude eskuragarri. Edozein gailu mugikorretatik eskura daitezke, eta horrek interaktiboago bihurtzen ditu, eta, kasu

askotan, berehalako saria ematen zaie, erakargarritasuna eta mendekotasun potentziala areagotuz. Hasieran egiten den apustua ez da handia izaten, eta horrek gastatzen denaren benetako pertzepzioa galtzera eramaten gaitu. Gainera, apustu-etxe eta online kasino askok ongietorri bonuak eskaintzen dituzte, jokoan hastea errazteko. Publizitatea, oraindik araututa ez dagoena eta oso oldarkorra dena, oso erakargarria da gazteentzat; izan ere, kirol-apustuen kasuan, irabazteko eta partidei emozio pixka bat gehiago emateko aukerak ikusten dituzte, taldeen eta jokoaren ezagutza proban jarriz, emaitzetan zoriak duen eragina ukatuz, "diru errazaren" ideia faltsuarekin.

## Alarma seinale batzuk:

- Apustu asko egitea.
- Jokoan dagoen ia diru guztia gastatzea.
- Familiari eta lagunei jokoaren inguruan gezurrak esatea.
- Dirua eskatzea apustuak egiteko.
- Apustu gehiago egitea galdutako dirua berreskuratzen saiatzeko.
- Apustuei buruz askotan pentsatzea edo hitz egitea.
- Apustu gutxiago egiten saiatzea eta ez izatea horretarako gai.
- Jolasaren ondorioz, ikasketak, lagunak, familia... jokoan jartzea.
- Ihes egiteko bitarteko gisa apustu egitea.

## Nola prebenitu dezakegu familiatik?

Familia babes faktore nagusienetako bat izan daiteke mendekotasunen aurrean, horrelako jokoei, horien ezaugarri eta

zorizko jokoei lotutako arriskuei buruzko egiazko informazioa partekatuz, bereziki kirol-apustuei eta on-line bideo-jokoei buruzkoa. Horrelako jokoetan, arazoa gartzeko prozesua azkarragoa da, eta gastua eta arazo ekonomikoak handiagoak izaten dira.

Gazteei jokoaren inguruko mezuei buruzko ikuspegi kritikoa sortzen lagundu ahal diegu: gazteekin gogoeta eginez "normalizazio faltsuari" buruz, gizartean onartutako denbora-pasa estatusa ematen laguntzen duen publizitateari buruz eta desiragarria bihurtzen duten sariei buruz. Gure jarrerarekin eta portaerarekin ere eragin dezakegu haien iritzietan, gure hitze-kin batera, gure ekintzak ere garrantzitsuak baitira.

Aisialdiko eta ohitura osasungarrietako aukerak erraztea ere lagungarria da. Oso







garrantzitsua da haurtzarotik bestelako entretenimenduak sustatzea, jokatik harago: lehiarik gabeko kirola, aire zabaleko jarduerak, lagunekin sozializatzea...

Era berean, ezin dugu ahaztu, helduak garen aldetik, adingabeak babesteaz arduratu behar dugula, eta gazteak ausazko jokoekin zerikusia duten praktika txarretatik babestu behar ditugula.

Horretarako, esku-hartze komunitarioko zerbitzuak Txorierriko ikastetxeekin lankidetzan dihardu arrisku-jokabide horien prebentzioan, eta urtero familia-eskolak antolatzen ditu, familiek profesionalen eskutik esperientziak eta zalantzak partekatzeko behar dituzten tresnak eskura ditzaten.

#### **Ana Gonzalez Gil**

Mankomunitateko Esku-hartze Komunitarioko Teknikaria

## Txorierriko ipuin bilduma liburua prest!

Txorierriko Mankomunitateak, 2017-2020 urteetan sarituak izan diren ipuinekin, "Ipuin bilduma liburua" argitaratu berri du.

Liburuok ikastetxeetan, liburutegietan eta euskaltegietan banatu dira, eta irabazleek ere ale bana jaso dute.

Horretaz gain Flippingbook euskarrian ikusteko aukera dago, edonork ipuinak zuzenean irakurri ahal izateko, eta baita E-book euskarrian ere, bilduma deskargatu eta gorde ahal izateko.

Mankomunitatearen [www.txorierri.eus](http://www.txorierri.eus) webgunean dago guztia eskuragarri. Goza ezazue bada, Txorierriko idazleekin.



## Txorierriko 23. Ipuin Lehiaketako saridunak

Ipuin lehiaketako sariak apirilean zehar banatu dira. Pandemiaren eraginez aurre ezin izan da sari banaketa antolatu eta sariak ikastetxeetan eta Mankomunitatean banatu dira zuzenean. Saridunak mankomunitateko web orrian ikus daitezke.

Zorionak guztie!.



a: Txorierri institutuko saridunak

# Helduen hezkuntza: munduko eskola alderantziz

t/a: Oskar Gaztelu, HHIko ikasketa burua

Adineko emakume bat iristen da, ondo jantzita eta korridoreko bankuan isil-isilik eseri da. Laurogeita lau urte ditu, aktibo egotera dator, bizirik, orain arte izan duen bizitza aktiboa jarraitzeko eta aberasteko. Bere ondoan Sahara hegoaldeko emigrante bat dago; gure hizkuntza ofizialak ez ditu ulertzen. Ikastetxean urtebete daraman lehengusua du alboan eta matrikula egiten laguntzen dio. Handik gutxira, oinarrizko mailan dauden emakume gazte musulmanak iritsi dira, euren artean Selma, Lezaman bizi den neskatila. Bilobekin hitz egiteko euskara ikasi nahi duten adineko pertsona talde bat ere hemendik dabil. DBH titulua ateratzeko bigarren aukeraren bila dabilzan gazteak ere tokia daukate hemen. Holakoa da Derioko Helduen Hezkuntzaren Ikastetxean (HHI) dugun ekosistema.

Hezkuntzan pentsatzen dugunean, oro har, haur, nerabe eta gazteen hezkuntza formalarekin lotzen dugu. Halere, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arabera, helduak ere eskubideen titular gisa aitortuak dira. Hezkuntzarako eskubi-



Alassane Camara, 29 urte. Hasi Cheganen (Mauritania) jaioa. Sininke da bere ama hizkuntza. Bertan saltzaille, gidari eta beste lan batzuk egin. Orain dela hiru urte heldu zen. Aurten lor dezake DBHko titulua. Bere nahia mekanika-robotika ikastea da.

dea unibertetsala da eta pertsona guztiei aplikatzen zaie, haien adina edozein izanda ere.

Helduen Hezkuntza Ikastetxea (HHI) itzalean dagoen espazioa da. Hala ere, HHI existitzen da, beharrezkoa da eta lan garrantzitsua egiten du gizarte moderno

baten esparruan. Alde batetik, bizi-kalitate hobea, sare sozial eta komunitario indartsuagoa eta erresilienteagoa eragiten duen ikaskuntza-ingurunea da. Gauden garaietan, helduen hezkuntzaren eta osasungintzaren arteko korrelazio zuzena dagoela jabetzea garrantzitsua dela azpimarratu behar dugu.



Felipe Augusto Tavares de Lima, Salvador de Bahian (Brasil) jaio zen orain dela 25 urte. Euskal Herrira 12 urterekin iritsi zen. Sei urte daramatza HHI-n ikasten. Aurten DBH titulua atera dezake. Erizaintzako laguntzailearen ziklo ertaina egin nahi du.



Hanan Al Aoudati. 42 urte. Tarmakalten (Maroko) jaioa da. Hemezortzi urterekin atera zen Marokotik. Orditik hona hainbat lan egin du: garbitzailea, pertsona nagusien zaindaria, enpresetan... Eta aldi berean ikasi. Aurten atera du DBHko titulua. Bere asmoa ikasten jarraitzea da, jakiteak ilusioa egiten dio.



Graciela Olaya, 53 urte, San Antonio herrian (Kolonia) jaioa. Hogei urterekin hona etorria. Zaharren egoitzetan, garbiketan eta ostalaritzan, Larrabetzuko Etorki tabernan 15 urte baino gehiago, egin du lan. Alabak eta senarrak HHIn izena ematera animatu dute. Bere ilusioa karreraren bat ikastea da helburu finko barik.

HHIk, zerbitzu publiko gisa, pertsona askori eskaintzen die irakaskuntza, eta gizartearekiko konpromiso handia du. Azken batean, Helduen Hezkuntza herri baten ongizaterako eta aurrerabiderako behar-beharrezkoa den ondasun komuna da: bizitza den ibai osoan zehar ikasten duen gizarte baten helburua gauzatzeko erabakigarria da haren ekarpena.

Egun, Txorierriko HHEko zentroa Leioako egoitza nagusiaren menpe dago eta 1986-1987 ikasturtean ipini zen mar-txan Derion. Gaur egun hango udalak Aldekona auzoan dituen lokaletan dago. Ikastetxean 100 pertsona baino gehiago daude matrikulatuta, eta horietatik % 50 baino gehiago atzerriarrak dira. Hogei nazionalitate, lau kontinente, India, Eslovenia, Maroko, Brasil edo Senegalgo ikasleak daude, besteak beste, bertako gelatan. Horrezaz gain, Zamudioko psikiatrikoan ere taldeak ditugu.

Nagusiki, ikasleriaren profila hiru

multzotan bilduko genuke. DBH titulua atera nahi duten ikasleak, hainbat arrazoi direla medio ikasketak amaitu ez dituzten edo beren garaian eskolara joan ez ziren 18 urtetik gorako ikasleak ditugu talde batean. Bigarrena prestakuntza maila globalean ere osatu nahi duten helduak dira, aktibo jarraitu nahi dutenak, gehienak emakumeak. HHIn bide bat izan da prestakuntza kultural integrala jasotzeko aukerarik izan ez zuten adineko emakume askorentzat. Hirugarren taldea gure hizkuntza ofizialak menperatzen ez dituzten etorkinena da. Gehiengoa hutsetik hasten da. Ez dakite hitz egiten, ez dute ulertzen, ez irakurtzen ezta idazten ere. Konplikatu da bizitzan aurrera ateratzea



Maip Niang, 27 urte, Senegalén jaioa. Orain dela lau urte heldu zen Euskal Herrira ibilbide luze eta latza egin ostean: Senegal, Mali, Burkina-Faso, Niger, Tripoli (Libia), Italia eta Euskal Herria. Senegalén “Wolof” bertako hizkuntza erakusten zuen. DBHko titulua lortzeko azken urtea egiten ari da HHIn; bitartean kalean saltzen ari da. Gero erdi ziklo bat egiteko asmoa du. Horrezaz gain, bere etorrerako bidaia nahi du idatzi noiz-bait, bere seme-alabek jakin dezaten ze zaila den batzuentzat bizitza.



Arantza Velasco, 41 urte, sondikarra. Hogei urte daramatza Eroskin lan egiten Arteako arrandegian. Bizitzari buelta eman nahi zion eta HHIn apuntatu zen DBHko titulua ateratzeko. Bikaineko notekin atera eta orain gradu erdiko mekanizaturik ikasten dabil. Bere gelako kide guztiak, hogeita lau, mutilak dira eta bera baino askoz gazteagoak.

komunikatzeko gaitasuna ez duen pertsona batentzat. Begiak, keinuak, gorputz adierazpenak dira komunikatzeko erabili behar dituzten baliabideak. Hona iristen den ikasle bakoitzak bizitza konplexua igaro du, kontatzekoa eta pelikula bat egiteko modukoa. Esate baterako gatazka belikoetatik etorritakoak; Ukraina, Georgia eta Sahararik errefuxiatutako ikasleak egon dira. Esan behar da haien ilusioa usaindu egiten dela, ahalegin bereziak egiten dituzte eta ematen duten esker ona ez duela parekorik. Irribarreak, nahiz eta batzuetan ezer ez ulertu, bihotzetara heltzeko moduak dira.

Aniztasuna eta belaunaldien arteko bizikidetzat da HHInko aberastasunik handienetako bat. Adin desberdintasuna, arrazen aniztasuna eta emakume nagusien aukerak bermatzea dira guretzat erronka nagusienak.

RPS: 184/10

**OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

L. LEIZADLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)  
946 522 857

**OAKLAND**  
ENGLISH

**ERREKA ONDO ETXEA**

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa.: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29



# “Artea mundua onartzeko modua da niretzat”

IANIRE SAGASTI RUIZ | artista

Artista plastikoa eta poeta da, eta duela gutxi irakasle hasi da EHU. Basaurikoa da jaiotzez, baina duela 10 bat urte Txorierri aukeratu zuen bizileku. Pasio handia du arterako, eta hori ulertzeko modu berezia eta apurtzailea, pinturan zein poesian. Ezinezkoa da hotz eta motz azaltzea bere obraren aurrean.

*t: Itxaso Marina Ondarroatz /Iratxe Pirla*

## **Noiz sentitu zenuen artearen bidez zure burua adierazteko beharra?**

Artea, batez ere pintura eta idaztea, nire bizitzaren parte izan dira beti: txikitatik izan dudana adierazteko modua. Udak aitita-amamen herrian pasatzen nituen eta han ez zegoen umerik jolasteko, eta gogoratzen dut orduak margotzen eta idazten ematen nituela, nire munduan sartuta, eta ondo pasatzen nuen benetan. Amamak Bibliaren ale bat zuen eta hango marrazkiak kopiatzen nituen.

## **Eta noiz erabaki zenuen artista izango zirela?**

Institutua amaitu ondoren zer ikasi erabakitzeko unea ailegatu zen, eta etxekoei adierazi nien Arte Ederrak ikasiko nituela; gainera, garai hartan marrazketa-eskolak jasotzen nengibilen. Ondo pentsatzeko esan zidaten, beharbada, Arte Ederrek ez zutela lan-irteera handirik izango... Baina nik erantzun nien ezin nituela beste ikasketa batzuk egin: artea nire bizitzaren parte da, eta munduari aurre egiteko dudana modua. Azkenean, gurasoek nire erabakia ulertu zuten eta lagundu zidaten, izan ere, nola behartuko ninduten beste ikasketa batzuk egitera? Pasio barik ezin da ezer egin, eta are gutxiago Arte Ederrak.

*“Pasio barik ezin da ezer egin, eta are gutxiago Arte Ederrak”*

## **Zergatik pintura eta poesia uztartu?**

2005ean hasi nintzen mundu horiek biak maila plastikoa batzen. Kordobako fakultatean ikasteko beka eman zidaten eta hasieran frustagarria izan zen, zer-

baitek ez zuelako funtzionatzen, nahiz eta nire buruan mundu biak uztartzeko ahalegina egin –esaterako, poema pinturaren bitartez adierazi-. Irakasleek haizearen aldeko egiteko aholkua eman zidaten eta orduan hasi zen nire obra funtzionatzen: gaur egun erabiltzen lengoia hasi zen sortzen. Poema ekintza piktorikora eramaten ahalegintzen naiz, ikusleak pinturan poema irakurtzea edo igartzea nahitaezkoa ez bada ere; baina, era berean, gerta daiteke margolanetik poema ateratzea, biek iturburu berbera dutelako: beharizana.

*“Nire obra piktorikoak zein poetikoak iturburu berbera dute: beharizana”*

## **Nolako artista zara, zure ustez?**

Ezaugarri autobiografikoa duen pintura lantzen dut, baina, hala ere, ez da beharrezkoa obran lanire ikustea. Nire obraren piztailea edo aitzakia zerbait oso-oso pertsonala izan ohi da; alabaina, egia da nire obran zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta gutxiago interesatzen zaidala atzean dagoen diskurtso autobiografikoa, ze ikusleek pinturaren keinuei, pintzelkadei, irudiei, materiari, koadroaren tratamenduari... erreparatzen diete, eta hori interesatzen zait gehien. Hau da, diskurtsoak ez dio garrantzirik kentzen alde plastikoari. Bestalde, nire poesia are gehiago da autobiografikoa: konfesionala da.

## **Eta zure obra?**

Grafismo handia du, orban asko; bixtia da bisualki... Hori gustatzen zait; ez zait eder-ederra den pintura gustatzen.

*“Nire obraren piztailea edo aitzakia zerbait oso-oso pertsonala izan ohi da”*

Nire obrak punk-ukitua du, horretan ikeritzen dut eta. Hala ere, beste zentzu batzuetan oso espresionista da. Erreferente figuratiboa izatea gustatzen zait, baina gainerakoekin kontrastatzen daitezela, pintura-masekin, grafiekin, oihalarekin... Batzuetan hobeto funtzionatzen du, eta beste batzuetan, okerrago: prozesuaren parte da. Nire obra oso espresionista dela esan genezake, eta mihisean asko mugitzeko joera dudala: formatu handiak gustuko ditut, pintura-jarioa, pintura-masa, bat-batean euskarria ikustea...

## **Zure poesia konfesionala dela esan duzu lehen.**

Errealismo zikin-ukitu batzuk ere izan ditu inoiz. Gaur egungo poesia da, oso lengoia arrunta erabiltzen duena, baina batzuetan osagai klasikoago bat sartzea ere gustatzen zait, pintura moduan, atentzioa eman dezan: “ederra” eta “txorta egin” hitzak bata bestearen ondoan idaztea, adibidez. Nire poesia ez da gozoa; nik ez dut gauza politik kontatuko, lehen esan dudanez, pintura zein poesia erabiltzen ditudalako aldarte-egoera negatiboak bideratzeko. Nire azken liburua *Una procesión de pieles, una sucesión de tierras* da. Bilbokoa izan ezik, gainerako aurkezpen guztiak bertan behera gelditu ziren pandemiaren eraginez. Zati bi ditu: lehenengoak ikuspegi femeninoagoa du eta sexualitateaz idazten dut, intimitateari lotutako gatazkez; bigarrena apur bat maduragoa da eta familia, lurraldeak, jaraunspen psikologikoa... ditut hizpide.



### **Zure buruarentzat sortzen duzu? Publikoarentzat?**

Nire buruarekin leiala izaten saiatzen naiz beti, nire ustez, hori ezinbestekoa delako obrak funtzionatzeko. Margotzeko aitzakiazat erabili dudana, sentimendua, zirrara... oihalean edo euskarrian adierazi nahi dut, eta publikoari helarazi, nahiz eta jakin badakidan norberak bere ikuspegia eta mundua begiratzeko modua duela. Horri lotuta, oso lan emozionalak egiten ahalegintzen naiz.

*“Nire poesia ez da gozoa; nik ez dut gauza politik kontatuko”*

*“Pintura zein poesia erabiltzen ditut aldarte-egoera negatiboak bideratzeko”*

**“Nire lanaren agresibitatea da adierazteko premiazko beharrezanaren emaitza”, idatzita duzu zure obrari buruz. Egunerokotasunean hitzez adierazten zailak diren sentimenduak, ideiak... bideratzeko modua da artea?**

Bai, izan daiteke. Nire kasuan, artea orokorrean, eta pintura eta poesia beziki, mundua onartzeko modua da. Oso pertsona positiboa naizen arren, eta batzuetan mundua leku zoragarria dela pentsatzen badut ere, orokorrean uste dut mundua kaka handia dela. Orduan, gogo-aldarte horiek artearen bitartez bideratzen ditut eta, nire iritziz, horrek laguntzen dit orekatuta egoten. Nolanahi ere, ez dut uste hori artean baliagarria den bakarra denik; artea komunikatzeko bidea ere bada eta kontzientziak aldatzeko gaitasuna du.

**Arreta eman digu denboraren joanean okerrago biziraungo duten euskarriak erabiltzeak: izarak, kartoia...**

Helarazi nahi duzun mezuaren parte da euskarria. Baliabiderik ez dagoenean,

*“Nire buruarekin leiala izaten saiatzen naiz beti, hori ezinbestekoa delako obrak funtzionatzeko”*



edozein euskarri erabiltzen da, baina dirua dagoenean, mihise handietan pentsatzen da. Nire kasuan, konturatu nintzen mihise handi horiek ez zutela funtzionatzen, estetika zikina eta apurtzailea izugarri gustatzen zaidalako: trazu edo orban batean ere edertasuna ikusten dut. Beraz, garrantzi handia ematen diot euskarriari, eta uste dut hori zenbat eta itsusiagoa izan, lanak are eta hobeto funtzionatu dezakeela. Egia esateko, izu ikaragarria ekartzen dit mihise handi eta garbi-garbi baten aurrean egoteak; askoz zailagoa iruditzen zait. Jendeak pentsa dezake arte abstraktua edonork egin dezakeela, umeek ere bai. Ez da egia. Umeek gauza zoragarriak egiten dituzte, jenio hutsak direlako; zu, berriz, saiatzeko zara eta emaitza da narrioz betetako zerbit. Halere, zarenarekin zerikusia duen zerbit egiten baduzu, dena hobeto joaten da, eta nire kasuan, mezua eta euskarria batera joaten dira. Esaterako, amorrua bideratu nahi badut, ez du zentsurik 200 euroko oihal txiki bat horretarako erabiltzeko, mezua galdu egingo da eta. Behin batean, kalean topatutako koltxoi-azalak erabili nituen margotzeko: oso poema erotikoak idatzita

nituen eta iruditu zitzaidan koltxoi-azalak euskarriak egokienak zirela poemak pinturan islatzeko.

*“Izu ikaragarria ekartzen  
dit mihise handi eta  
garbi-garbi baten  
aurrean egoteak”*

**Hortaz, badakizu zure lanak neurri batean galduko direla.**

Bai, eta berdin dit, lana sortzen dudalako momentuan sentitzen dudana kontuan hartuta, eta iraungo du iraun behar duena. Are gehiago, lanak bota egin ditut inoiz, ordurako ez zirelako nire bizitzaren parte. Halaz ere, egia da batzuetan euskarri egokia izan arren, lanak ez duela aurrera egiten. Poesian zorrotzagoa naiz, agian, baina pinturan gorabehera handiak ditut: gerta daiteke sasoi batean lanean buru-belarri egotea eta jatea ere ahaztea, baina gero hilabeteetan ezer ez egitea, sentitzen dudalako ez dudala zer konta-

tu. Sortze-prozesuaren parte da hori eta ariketa moduan hartzen dut. Halako momentuak aprobeztatu ohi ditut enkarguak egiteko, edo jendaurrean ikusgai ipiniko ez ditudan lanak egiteko.

*“Lana momentuan  
sentitzen dudana  
kontuan hartuta sortzen  
dut, eta iraungo du iraun  
behar duena”*

**Enkargu horiek oso bestelakoak izango dira, ezta?**

Bai, hurbilekoek eskatzen didatelako egiten ditut. Ariketak dira niretzat eta ez diet nire obrari eskaintzen diodan “arima” eskaintzen. Dena dela, badakit nirea ez dela erraz erosten den obra: ikusgai ipintzeko obra da; ez sofa gainean ipintzekoa. Hala ere, ez pentsa, koadroren bat ere saldu dut.

**Ikusi dugu proiektu bat hasi duzula hilekoko odola erabilita.**

laz hasi nintzen kopa menstrualaren era-

Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL  
EUSKALTEGIA



### UDAKO IKASTAROAK

- **C1** - ekainaren 1etik 25era, 9:00-14:30 (95 eskola-ordu)  
Izena emateko azken eguna maiatzaren 28a

- **MINTZAMENA** - ekainaren 22tik uztailaren 9ra,  
Astean 6 ordu 3 egunetan (18 eskola-ordu)  
Izena emateko azken eguna maiatzaren 28a

- **B1-B2-C1** - uztailaren 1etik 26ra, 9:00-14:30  
(90 eskola-ordu)  
Izena emateko azken eguna ekainaren 25a

- **B1-B2-C1** - irailaren 1etik 24ra, 9:00-14:30 edo  
16:00-21:30 (90 eskola-ordu)  
Izena emateko azken eguna ekainaren 25a

\*Langabetuentzat matrikuletan prezio bereziak.

- **MINTZAMENA** - irailaren 13tik 24ra, 3 ordu eguneroko  
(30 eskola-ordu)  
Izena emateko azken eguna uztailaren 12a

- **B2 eta C1** - irailaren 13tik 24ra, 3 ordu eguneroko  
(30 eskola-ordu)

Izena emateko azken eguna uztailaren 12a  
*\*Deialdi itxira joan diren ikasleentzat baino ez. Lehen deialdira aurkeztu diren ikasleak izan behar dira, idatzian edo ahozkoan gairiditu ez dutenak; baita, lehen deialdira ezin izan direnak joan ekaina arte ez dutelako*

**MATRIKULA ZABALIK  
INFORMA ZAITEZ**

944 540 062 // euskaltegia@txorierrri.eus



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrri.eus

biltzen eta, nire obraren eta nire buruaren arteko lotura oso estua izatea nahi dudanez, pentsatu nuen, beharbada, odola pinturatzat erabili ahal nuela. Esperimentatzen hasi nintzen, eta otu zait proiektu bat egitea harik eta hilekoa kentzen zaidan arte. Urtero egiten dudana gordez joango naiz, egunekoa balitz bezala, eta, ahal dela, gustatuko litzaidake proiektua ikusgai jartzea, eta irudien mapa bisual moduan aurkeztu. Lantzeko orduan, hilekoko odolak akuarelaren antza du; hala ere, erraz-erraz egiten du cracking. Produktu kimikoak erabiltzen nabil hori ekiditeko, baina kolorea aldatzen da eta zait asko gustatzen...

#### Zer duzu inspirazio-iturri?

Ikasleei beti esaten diet adi eta edozein gauzatarako zabalik egon behar dutela, gauzarik hutsalena ere inspirazio-iturria izan daitekeelako. Hitz bat, hunkitu nauen zerbait, idazten nabilen poema... Buruan ideiak eta ideiak sortzen dira eta berehala hasi behar dut lanean, horixe baita helarazi nahi dudana esentzia. Momentuan itotzen nauen hil edo biziko beharizana da, oka bat, eta horregatik gustatzen zait obrei buru-belarri ekitea, freskotasuna gal ez dezaten. Aitzitik, samurregi iruditzen bazaizkit eta aurrerago egingo ez dutela ikusten badut, bertan behera uzten ditut eta, lehen esan moduan, ariketa gisa hartzen ditut. Gauza askok inspiratzen naute, baina egia da beti osagai apur bat negatiboa dagoela. Beste aldetik, collagea lantzea gustatzen zait, itsastea, urratzea... bat-batekotasuna.

*“Gauza askok inspiratzen naute, baina egia da beti osagai apur bat negatiboa dagoela”*

#### Zeintzuk dira zure erreferenteak?

Asko ditut, baina Tracey Emin da gehien gustatzen zaizkidan artistetako bat; eta gero, jakina, betiko margolari handiak, Goya tartean. Poesian ere milaka erreferente ditut. Lehen gehienbat gizonek idatzitakoa irakurtzen nuen, baina orain batez ere emakumeek idatzitako poesian ipintzen dut arreta, adibidez, Anne Sextonen obran. Literatura erromantikoa ere irakurtzen dut, udan batik bat, deskan-

tsatzeko, hain bizi-osagai handia duen poesia ere barneratu behar delako.

#### Sari asko jaso dituzu pinturan zein poesian. Zer dira?

Zalantza- eta kritika-uneak egon diren arren, egindako ahaleginari erakutsitako esker ona. Dena dela, nik ez ditut obrak beren-beregi sarietarako egiten; aurretik izan ditut eginda, eta hortaz, artea moduko hain bestelakoa eta sentibera den mundu batean sari bat jasotzea egundoko gauza da.

#### Zer nolako planak dituzu?

Idea asko ditut buruan, baina denbora gutxi. Urte amaieran erakusketa egingo dut Basaurin, herriko beste artista birekin batera. Talde-erakusketak oso aberasgarriak dira ikusle zein artista moduan, beste mundu batzuk ezagutzen dituzulako, harremanak lantzen dira, besteak egiten

dabiltzana ikusten duzu, muntaketa nola egiten den... Eusko Jaurlaritzak beka bat eman zidan 2019an eta proiektu hori hain zuzen ere eramango dut erakusketara. Proiekturako lan berri bat egitea gustatuko litzaidake, baina urte bi pasatu dira eta hausnartu behar dut orain egindako zerbaitek egitasmo horretan lekurik duen.

#### Eta proiektu horren abiapuntua da portadarako aukeratu dugun argazkia.

Bikotekideari eta bioi asko gustatzen zaizkigu txintxortak eta txerri-masail erdia erosi genuen okindegian. Hozkailuan sartzeko, txerri-masaila poltsatik ateratzen genbiltzala izan nuen ideia: hura aurregian ipini nuen eta bikotekideari esan nion argazkiak egiteko. Portadakoa da argazki-sesioaren lehen irudia, eta proiektuaren abiapuntua: argazkia deseraikinez doa pintura bihurtzeko.

## Irakasle EHUn



Basaurikoa, 1983an jaioa. Sondikan bizpahiru urte eman ondoren, 2013an Loiura bizi izatera joan zen, Larrondora. “Poz-pozik gaude hemen. Hiritik eta zalapartatik urrun bizi nahi genuen, eta, oso polita izateaz gainera, Loiu leku lasaia da: berdegune asko daude, paseatzera atera ahal zara, ibilbideak egin... Gainera, garaio publikoa eskura dugu”.

Duela gutxi irakasle hasi zen Arte Ederretako Fakultatean. “Eskola-saioetan % 200 ematen ahalegintzen naiz, eta arterako dudana pasioa ikasleei helarazi. Pintura I irakasten diet lehen urratsekoei, eta akuarelak, olioak, akrilikoak... egiten ere irakasten dut. Hirugarren urratseko

ikasleekin lantzen dut proiektu pikturiko bat nola sortu, eta oso aberasgarria da, sormen-lan handia egiten dudanez, energia kutsatu ahal diedalako”. Galde-tu diogu ikasgelara artea ulertzeko bere modua eramaten duen eta “bai eta ez” erantzun digu. “Ikasleei arterako ditudan grina eta lilura helarazten saiatzen naiz, baina, gero, azaldu behar dena azaldu behar da. Ildo horretatik, nire ustez, egokienak diren erreferenteak aukeratzeko ditut eskola-saioetarako, nahiz eta gehiago edo gutxiago gustatu. Izan ere, arterako pasioa helarazteko, ez da beharrezkoa zure obrari buruz hitz egitea, sentitzen duzunari buruz baizik”.



# “Pasaporte berdeak segurtasun faltsua ekar lezake”

MIREN BASARAS | Mikrobiologian doktorea



la urtebete eta erdi pasatu da SARS-Cov-2 birusa antzeman zenetik, eta ia urtebete eta hiru hilabete, erabateko konfinamendutik. Hilabete bakan batzuetako kontua izango zela pentsatzen genuen askok, baina luzeegi jotzen ari da eta oraindik ere adi-adi egoteko hilabeteak ditugu aurretik. COVID-19aren aurkako txertaketa-kanpainan buru-belarri gabiltzala, Miren Basaras Derioko mikrobiologoarekin aztertu dugu gaur egungo egoera.

t: Itxaso Marina Ondarroa

## Gauzak antzera daudela pentsa liteke...

Zientziaren ikuspegitik asko aldatu da egoera. Orain, esaterako, oso ondo dakigu birusa nola transmititzen den: hasieran uste genuen aire-tanta handien bidez hedatzen zela eta horregatik distantzia fisikoaren garrantzia; baina gero ikasi dugu aerosolak edo aire-tanta txikiak garrantzitsuak direla eta horregatik maskara erabiltzearen inportantzia. Hala ere, egia da gizartean berdin jarraitzen dugun sententzia izan daitekeela. Beharbada, pentsatzen zelako hau bi edo hiru hilabe-

tean konponduko zela, baina benetako pandemia batean ez da horrela izaten: mundu osoko arazoa da eta; gainera, aire bidez transmititzen den birusa bada, oso zaila da hura kontrolatzea. Pandemiaren hasieran bagenekien konponbidea izan zitekeela tratamendu eraginkor bat, gaur egun ez duguna, edo txerto bat; eta horrek denbora eskatzen du. Pertzepzio hori, agian, ez da ondo eman gizartean eta espero zen konfinamendu gogor haren ondoren egoera konponduko zela.

## Modu egokian jaso dugu informazioa?

Batzuetan ez dakit informazioa modu egokian jakinarazi den, ze batzuok esaten

genuen pandemia luzea izango zela, ala herritarrok nahi izan duguna entzun dugun. Izan ere, orain ere nahiz eta entzun birusak gure artean jarraitzen duela eta neurriak bete behar direla, bakoitzak nahi duen moduan jokatzeko du. Gauza biak izan daitezke.

*“Batzuetan ez dakit informazioa modu egokian jakinarazi den ala herritarrok nahi izan duguna entzun dugun”*

**Txertoei dagokienez, inprobisatzen ari dela pentsa liteke: azkar-azkar garatu dira, adin-tarte bakoitzarentzat bat edo batzuk, aldaketak txertaketa-plan-gintzan, albo-ondorioak...**

Birusaren genoma ezagutu bezain laster hura enpresa farmazeutiko eta laborategi zientifiko guztiei jakinarazi zitzairen, lanean hasi ziteziren; prozedura hori ez da ohikoa. Bestalde, 2003an beste birus antzeko bat agertu zen, gaur egun desagertuta dagoena, eta garai hartan ere txerto bat garatzen hasi zen: informazioa gordeta egon da. Halaber, dirutza publikoa zein pribatua ipini da txertoa egiteko, eta saiakuntza klinikoaren emaitzak uneoro bidaltzen dira arautze-agentzietara. Horri lotuta, txertoak ez daude guztiz onartuta, baimenduta baizik; hau da, uneoro ikusten ari da gizartean zein datu agertzen diren, eta milaka pertsonen albo-ondorio larri bat izanez gero, txertoa bertan behera geldituko litzateke. Esandako guztiak prozesua asko arindu du. Beste aldetik, zorionez, txerto bat baino gehiago ditugu...

*“Ikerketa guztietan argi eta garbi ikusi da txertoa hartzearen onura milioika aldiz altuagoa dela”*

#### **Zorionez?**

Bai; bestela, nola ekoiztu populazio osoarentzat behar diren milioika dosiak? Saiakuntza klinikoetan ikusten denez, txerto batzuek beste batzuek baino eraginkortasun-maila handiagoa dute, Pfizer eta Moderna kasu. Horregatik erabaki da txerto horiek adineko pertsonen eta talde zaurgarriei jartzea, immunitate-sistema ahulagoa dutelako, eta, ondorioz, antigorputzak sortzeko arazoak. Egia da AstraZenecaren kasuan gorabeherak izan direla, baina, hainbat proba egin ondoren, Europako Erregulazio Agentziak argi utzi du txerto segurua eta eraginkorra dela eta edozein adin-tarteko pertsonari ipini ahal zaiola. Erresuma Batuan, adibidez, txerto horren milaka dosi erabili dituzte, eta 18 urtetik gorako edozein pertsonari jarri diote; ondorioz, hilkortasuna eta ospitalizazioa nabarmen jaitea lortu dute. Azkenik, egia da



txerto guztiek albo-ondorio batzuk dituztela eta batzuk larriak direla, odolbilduak tartean; hala ere, horien ehunekoa oso-oso txikia da, eta kontuan hartu behar da zein den txertoa hartzearen onura eta zein den txertoa ez hartzearen arriskua, gaixotzea, hain zuzen ere; egin diren ikerketa guztietan argi eta garbi ikusi da onura milioika aldiz altuagoa dela.

#### **Txertoen patenteak askatzea mese-degarrria izango litzateke, zure ustez?**

Txertoetan diru publiko itzela ipini da eta horrek erraztu beharko luke patenteak askatzea. Alabaina, patenteak askatzeak hurrengo arazo hau ekarri lezake: txertoak edozein herrialdean ekoiztu ahaliko dira, baina herrialde guztiek enpresak prestatu ahaliko dituzte txertoak egiteko? Estatu Batuak, esate baterako, oso txertaketa-maila handia izan dutenean azaldu dira patenteak askatzearen alde; nik ez dakit bidea den patenteak askatzea, edo, beharbada, bertan ekoizten ari diren milioika txertoak beste herri batzuetara eramatea.

#### **Diskriminatzailea da pasaporte berdea? Interes ekonomikoetara begira dago?**

Momentu honetan diskriminatzailea da, nahi arren, guztioi ez digutelako txertoa jarri. Gainera, txertoa herrialde guztietara ailegatzen ez bada, nola lortuko dute pasaporte hango herritarrek? Dударik gabe, interes ekonomikoetara begira egindako kontua da, pertsonak leku batetik bestera mugitu ahal izateko. Nolanahi ere, nire

iritziz, pasaporte horrek segurtasun faltsua ekar lezake: txertatuta nagoenez, babestuta nago. Eta hori ez da beti horrela, txertoak ez direlako % 100ean eraginkorrak. Segurtasun faltsuko sententzia hori arrisksua da, batez ere transmisio altuko lekuetan.

#### **Arazo globala da: Osasunaren Mundu Erakundearen COVAX programak xede du munduko herrialde guztiek txertoa eskuratzeko aukera izatea.**

Funtsezkoa da, birusak oso erraz zeharkatzen dituelako muga geografikoak: edozein herrialdean izandako aldaera berehala ailegatzen da hona. Horren harira, lehen esan moduan, oso inportantea da txerto bat baino gehiago egotea, izan ere, txerto bakoitzak bere gordetze-estrategia du –esaterako, Pfizerreko eta Modernako txertoak oso izozkailu berezietan gorde behar dira– eta baliabideak ez dira berdinak munduko txoko guztietan. Gainera, berriro ere azpimarratu behar da ze inportantea den enpresa farmazeutikoak ekoizten dabiltzan milaka eta milaka dosiak beste herrialde batzuetara eramatea.

*“Hildako gutxiago egon arren, kutsatze-maila handia bada, ospitaleen presioak handia izaten jarraituko du”*

**Alarma-egoera bertan behera utzita, espero da datozen asteetan kutsatze-tasa eta ospitaleen presioa igotzea.**

Gertatu daiteke. Badirudi, alarma-egoera bertan behera uzte horrekin, pandemia amaitu den mezua kaleratu dela, baina ez da amaitu. Kutsatze-tasak behera egitea eta txertaketa-kanpainak aurrera egitea ezinbestekoak dira pandemia kontrolatzeko eta beste herri batzuetan ikusi dugun inpaktua hemen ere ikusteko. Hildako gutxiago egotea espero da, baina egia da kutsatze-maila handia bada ospitaleen presioak handia izaten jarraituko duela. Beste aldetik, aipatutako herrietan oso neurri gogorak hartu dira, Erresuma Batuan, esate baterako; eta bertan pasatu gara alarma-egoeratik ezer ez izatera...

*“Beste kontu batzuk bermatzeko, kasu gutxi egin digute epidemiologoei, mikrobiologoi...”*

**Interes ekonomikoak eta politikoak alde batera utzita, neurri egokiak hartu dira?**

Nahasketa asko egon da eta zoratu gaituzte. Badakit hau luzeegia dela gutzintzat, baina askatasun apur bat eman digute momentu batzuetan –Gabonetan eta Aste Santuan– eta pentsatzen dut ez geundela horretarako egoeran. Alde batek ebidentzia zientifikoa dago: birusa; eta bestetik, beste irizpide batzuk. Eta sarritan, beste kontu batzuk bermatzeko, kasu gutxi egin digute zientzialariei, epidemiologoei, mikrobiologoi...

**Zaila da etorkizuna iragartzea, baina, beste herrialde batzuetako egoera ikusita, espero liteke laster segurtasun-eta babes-neurriak erlaxatzea?**

Txertaketak aurrera egin ahala ailegatu da, baina falta zaigu oraindik. Agian, hilabete batzuk barru leku irekietan maskara kendu ahal izango dugu; leku itxietan, berriz, zailagoa ikusten dut, horretarako herritarren % 70ak baino gehiagok txertatuta egon beharko lukeelako. Gainera, 18 urtetik beherako populazioa ere kontuan hartu behar dugu, eta gurean udazke-

nean edo neguan hasiko da horiei txertoa ipintzen. Pandemia amaituko da; hala ere, ezin dugu datorren hilabetean amaituko dela pentsatu. Pentsatu behar dugu aurre erabakigarria izango dela eta bultzada handia eman behar diogula txertaketari. Horrezaz gainera, inportantea da uneoro birusari begira egotea, eta txertoak prestatu, izan ahal dituen aldaerei aurre egiteko. Mundu osoko herritarrak datozen hiru hilabeteetan txertatuta egongo balira, arazoa amaituko lirateke, baina hori ezinezkoa da. Horregatik ezinbestekoak dira transmisio komunitarioa etetea eta txertaketa masiboa; horretan guztiok hartu behar dugu parte: agintariek, balibideak jartzen, zein herritarrok.

*“Ezinbestekoak dira transmisio komunitarioa etetea eta txertaketa masiboa; horretan guztiok hartu behar dugu parte”*



**TALDEA GURENA**  
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK



**ZURE NEURRIRA**

**BABESPEKO APARTAMENTUAK**  
600 euro  
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIK EGOITZEAN**  
egunean  
gauean  
asteburuetan

---

Unbe txiki bidea 9  
LOIU 48180  
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

**944 530 049**  
**www.gurena.com**

## MAIDER AURREKOETXEA ETA NAROA BENGOA

LARRABETZU ILE-APAINDEGIA (LARRABETZU)

Ile-apaindegia duela hiru urte hartu zuten, baina aurretik bertako langileak izan ziren. "Jende gutxiago etortzen da ile-apaindegira hainbat arrazoi tartean: alde batetik, ez da lehen beste etxetik ir-teten, eta bestetik, ez dago ezkontzarik, bestelako konpromisorik... Era berean, konfinamenduan ilea apaintzeko beharra izan zuen jendeak, eta etxean frogatu: harrezkero, baten batek jarraitzen du ilea berak apaintzen. Gainera, itxiera perime-tralek kalte handia ekarri digute, beze-roen % 20 gutxi gorabehera beste herri batzuetatik etortzen da eta. Ez da erraza izan. Etorkizuna gogor ikusten dugu, baina itxaropentsu ere bai: espero dugu apurka-apurka, normaltasunera hurbilduz joan ahala, dena hobetzea. Denon artean lortuko dugu".



## AMAIA REMENTERIA ORUE

LILIAK LORE-DENDA (DERIO)

Lore-denda duela 23 urte zabaldu zuen eta bera eta beste langile bat dira bertan. Bere hitzetan, osasun-protokoloari dagokionez, agindutakoa "baino oraindik ere apur bat zorrotzagoak gara, pentsatzen dugulako hobe dela". Hala ere, nabaritu da azken asteetan bezeroak gehiago erlaxatzen hasi direla. "Bestalde, dendako salmentek behera egin ez badute ere, fakturazioa jaitsi da, iazko ezkontzak eta ekitaldiak bertan behera utzi zire-lako. Aurten berriro hasi da ezkontzak-eta egiten eta lan gehiago dugu". Aldarrikatu du denda txikien aldeko apustua egiten jarraitu behar dela. "Horrek eskatzen du administrazioak inplikazio handiagoa izatea, plangintza gehiago egitea eta erraztasunak ematea. Ze alde batetik, dirulaguntzak ematen dituzte, baina bestetik, Ogasunak TicketBAI programa martxan ipini nahi du urtariletik aurrera, eta, nire ustez, lotsagarria da jendea orain, fakturazio gutxiago duenean, halako inbertsio bat egitera behartzea".

## MARISOL COUCEIRO

LOIU GURENA ZAHAR-ETXEKO ZUZENDARIA

“Lasaiago gaude, baina ez erlaxatuta. Birusa ez da iazko martxotik zahar-etxean azaldu, eta langileen eta egoiliarren % 96 txertatuta gaude; hala ere, kontuan hartu behar da urtean zehar bajak, oporrak... bete behar direla eta izan daiteke ordezko langilea txertatuta ez egotea. Era berean, bisitari guztiek ere ez dute txertoa jarrita. Horregatik guztiagatik jarraitu behar dugu osasun- eta segurtasun-neurri guztiak zorrotz betetzen. Gainera, txertatuta egoteak ez du esan nahi kutsatuko ez zarenik. Horri lotuta, positiborik antzeman ez gero, foru aldundiak ohiko protokoloa ezartzen segitzen du: proba egiten zaigu langile eta egoiliar guztioi”. Azken dekretuaren ondorioz, zahar-etxeetako egoiliarrek astean hiru bisita izan ahal dituzte egoitzan bertan, eta egunero atera ahal dira paseatzera. “Guk aire zabaleko gune asko ditugu eta aurreko dekretutik gabiltza aukera hori ematen, familien eta egoiliarren arteko harremana inportantea eta beharrezkoa delako. Familien % 99k oso jarrera ona du eta oso ondo moldatzen dira bisiten ordutegira eta baldintzetara”.



## ALBERTO BASTERRETXEA

ALBERTO HARATEGIA (ZAMUDIO)

Negozioa duela 34 urte ipini zuen martxan, eta gaur egungo lokalean 11 urte daramatza. Berarekin batera beste pertsona bat dabil harategian. Itxiera perimetralek kaltea ekarri diote, bezero batzuk alboko herrietako biztanleak direlako; hala ere, pandemiaren hasierako hilabeteak pasata – “Guztontzat izan ziren gogorrak”–, COVID-19ak ez du oso eragin handirik izan bere negozioan. “Txokoak itxita egon direnez eta jaiak bertan behera utzi direnez, egia da salmentek apur bat behera egin dutela, baina orain jendeak gehiago erosten du etxerako eta antzera gabiltza”. Harategian osasun- eta segurtasun neurrietara ohitu behar izan dute langileek zein bezeroek, eta kaleko ilaran itxarotera. Pandemiaren hasieran arazoren bat egon zen eskariekin, baina egoera “apurka-apurka normalizatuz joan zen eta gaur egun eskatutako guztia jasotzen dugu”.

**IDOIA ZARATE**

ZAMUDIOKO ETA DERIOKO LUR-LANGILEEN  
KOOPERATIBA

Kooperatiban 31 urte daramatza administrari moduan eta esan digu pandemiak lan handia ekarri diela. Sei langile dira. "Pandemiaren aurretik gehienbat ezagunak, baserritarrak, etortzen ziren, baina etxean gehiago egon garenez, beste zereginik barik, asko animatu dira lorategia ipintzera, soroa, animalien bat: oi-loak, untxiak... Oso jende gaztea hurbildu da hona eta asko papera eskuan etorri dira aholku bila, galdezka landareak, piperrak, tomateak... nola ipini behar zituzten. Ez dut uste letxugarik gabeko balkoirik edo leihorik egongo denik! (kar-kar). Osasun-eta segurtasun-protokoloak egonda ere, normaltasunez egiten dute lan kooperatiban, "nahiz eta batzuetan bezeroei gogoratu behar diegun pertsonen arteko tartea uztea edo nondik sartu eta atera behar diren".

**JESUS ENRIQUE LOPEZ**

ZAINDUZ HORTZ-KLINIKA (DERIO)

Hortz-klinika 1995ean zabaldu zuen eta gaur egun bost langile dira. "Pandemiaren hasiera izugarria izan zen. Gainera, zail-zaila zen lan egitea Bizkaiko Haginlarien Elkargo Ofizialak ezarritako protokoloiei jarraituta: pantailak ipinita eta abar. Bestalde, itxiera perimetralek kalte handia ekarri digute kanpoko gaixo askok nahiago izan dutelako ez etorri itxierera irau duen bitartean". Txertoa berandu ailegatu da bere gremiora, "baina ongietorria izan da eta, bestalde, segurago sentitzen gara lan egiteko orduan". Protokolo zorrotzak zituzten lehen; are zorrotzagoak, orain. "Alfonbra desinfektatzailea, tenperatura hartu, eskuak garbitu, birus-karga arintzen duen produktua hartu, ozonoa botatzen duten argi ultramareak ixten dugunean... Inoiz gertatu da bezeroa kalentura duela etortzea; kasu horietan nork bere burua babesteko ekipoa jantzi behar izan dugu, tratamendua nahitaez egin behar zelako". Pandemiaren eraginez, askok galdu dute lana edo aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean daude. "Tratamendu batzuk garestiak dira eta nabaritzen da jendea ez dela ausartzen pandemiaren aurretik pentsatuta zituen tratamenduak egitera".

# Zu Argazkilari

Zure herriko txokorik ederrenei argazkia egin, eta aikortxori@aikor.com helbide elektronikora bidali. Argazkiak hilerok argitaratuko ditugu Aikor! aldizkarian eta www.aikor.eus webgunean.




Unai Barcia (Sondika)



Esti Odriozola (Larrabetzu)



Estitxu Perez (Zamudio)



Irene Diaz (Derio)



Ursula Yusul (Sondika)



T: Txiribita

**Habitata**

Larreetan, bazkalekuetan, soropiletan, lugorrietan, harea sikuetan edo bustietan...

**Noiz batu**

Ia urte osoan, klimaren arabera, eta nagusiki martxotik maiatzera bitartean. Dena aprobetxatzen da: hostoak, loreak eta sustraiak. Loreak beroa dagoenean jaso behar dira, lorea erabat zabalik dagoenean. Hostoak martxotik urrira bitartean batzen dira, loraketaren aurretik, eta airean sikatzen dira, oihal baten gainean eta gerizpetan. Errizomak/sustraiak apiriletik ekainera eta irailetik azarora bitartean batzen dira.

**Ezaugarri dietetikoak**

-A, B eta C bitamina-ekarpen handia, kaltzioa, burdina, potasioa, magnesioa...

-Oso arazgarria, diuretiko eta hepatikoa.

-Lagungarria da gorputzetik toxikoak ateratzeko.

**Sukaldean**

-Landare osoa jan daiteke.

-Hostoak: entsaladetan erabiltzen dira, barazki edo gozagarri moduan (gordinak edo egosiak). Hosto gazteak eta samurrak batu behar dira, txikoria-belarra loratu baino lehenago, izan ere, loratzen denean hostoak mingots bihurtzen dira.

-Errizomak: txigortuak eta ehoak, kafe-suzedaneoa da.

-Loreak: entsaladetan, postreetan... erabiltzen dira, baita jele edo ezti gozoa egiteko ere.

**Mahaiko ura**

Landarea ur hotzean sartuta utzi behar da gau osoan, eta hurrengo egunean edan.

# Txikoria-belarra

## Belarrak eta landareak batzeko aholkuak

**Orokorrean:** hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezten; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

**Non:** larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

**Noiz:** goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

**Materialak:** eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

**Ardoa**

Osagaiak: 80 g sustrai eta lore, litro bat ardo zuri. Prestatzeko: sustraiak eta loreak ardo zuritan sartu, eta 10-15 egunean beratzen utzi behar dira, leku siku eta ilun batean. Apur bat eragin behar da egunero. Esandako denbora-tartea pasatu ondoren, ardoa iragazi eta gorde egin behar da. Gozagarria da, hepatikoa eta arazgarria.

**Ortuan**

-Loreek erleak erakartzen dituzte, polinizatorako mesedegarria dena.

-Gorotza eta txikoria-belarraren hos-

toak, loreak eta zurtoinak erabiltza egin-dako ongarria, kaltzioa eta silizea ematen dizkie laboreei.

**Kontraindikazioak**

Haurdun dauden edo bularra ematen dauden emakumeek eta 12 urtetik beharako umeek neurritz hartu behar dute. Deshidratatuta dauden gaixoek ezin dute hartu.

**Bitxikeriak**

"Meacamas" esaten zaio: ukituz gero, ohean txiza egiten dela esaten da, ziur asko, propietate diuretiko handia duelako.





# Elkarlanaren indarra eta aberastasuna



t: Alexander del Rio Antolin

Gizarte solidarioagoa, justuagoa eta bidezkoagoa sortzen laguntzea da Emaus Gizarte Fundazioaren lanaren helburua. Horretarako, prozesu eraldatzaile indibidualak eta kolektiboak sustatzen ditugu eta lehenetsua ematen diegu gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen bizi-baldintzak hobetzeari eta pertsona horiek ahalduzaz. Prozesu eraldatzaileak bultzatze aldera, gure apustu nagusiak dira komunitatearen parte-hartzea, sareak sortzea eta eraldaketa sustatzeko ezinbestekoak diren eragileekin lan egitea, hezkuntza-eragileak kasu.

Ildo horretan, Ikaskuntza Zerbitzua metodologiaren bidez, EHUko Irakasle Fakultatearekin elkarlanean aritu gara azken bost urteetan. Metodologia horren abiapuntua da, gizartea hobetzen laguntzeko, hezkuntza parte-hartze aktiboan, arduratsuan, kooperatiboan eta solidarioan oinarritu behar dela, eta irakasleen, ikasleen eta gizarte-erakundearen arteko lan horizontala eta koordinatua dakar.

2021eko lehen seihilekoan, bi ikasle-talderen lankidetzeta eta partaidetza izan dugu. Ikasleek berdintasuna eta feminismoa hartu dituzte lankidetzarako gai nagusitzat eta Derioko zerbitzuko erabiltzaileekin batera bi prozesu garatu eta gidatu dituzte: bata irratiko komunitarioaren esparruan, eta bestea musika-sorkuntzan.

Izan taldeko neskek eta gure zerbitzuaren erabiltzaileek podcast berezi bat sortu dute berdintasunaren eta feminismoaren inguruan. Podcastak

bost atal ditu. Martxoaren 8aren sorreraz gainera, egun horren gaineko eztabaida jaso da podcastetan, eta Natalia Joane Moodyk elkarrizketa batean egindako hausnarketak batu. Era berean, modu ludikoago batean, musikan eta beste esparru batzuetan erreferente izan diren atzoko eta gaurko emakumeak ezagutzeko aukera dugu. Programa Soundcloud plataforman dago entzungai, bilatzailean "Emaús Fundación Social" idatzita. Gure irratiko beste programa batzuk ere plataforman ipini dira.

Bestalde, Eguzkimore taldearekin lankidetzan, abesti bat konposatu dugu

emakumeek pairatzen dituzten diskriminazioei buruz. Eguzkilore taldeak idatzi ditu errebindikazio-hitzak eta Txorierriko zenbait musikariek eta Derioko zerbitzuaren erabiltzaileek konposatu dute musika.

Izan eta Eguzkimore taldeetako nesken hitzetan, "esperientziak utopikoa eta alegiazkoa zirudien" eta hura PAI Bitartean arreta osoko programari esker gauzatu ahal izan dute. Nesken ustez, esperientzia "aberasgarria" izan da, zeren eta ikasgeletatik eta fakultetatik ateratzeko aukera izan baitute, eta proiektu batean hainbat pertsonarekin – Emauseko Gizarte Fundazioaren erabiltzaileekin, kasu honetan – lankidetzan aritu. Gainera, oso tarte atsegina partekatu zuten eta elkarrengandik ikasi zuten. Hau da, esperientzia baliagarria izan da talde bat kontzientziatu dadin metodo eta estrategia asko daudela ikasteko eta irakasteko.

Kasu bietan, elkarlanak Derioko zerbitzua ikusgai egitea izan dute helburu, eta parte garen komunitatearen parte-hartzea bultzatzea. Halaber, ikuspuntu akademiko eta eraldatzaile batetik, Bitartean programaren beste xede bat hau da: gizarte-premietan zuzenean lan egiten duten etorkizuneko hezitzaileek ikaskuntza akademikoan benetako esperientziak izan ditzaten laguntzea.

## Liburuaren Nazioarteko Eguna

t: Ane Piriz

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. Hogeitau urte baino gehiago dira egun hori nazioartean ospatzen dela eta helburuak dira irakurzaletasuna bultzatzea eta idazleen eskubideak babestea. Geuk ere ekintza txiki bat egin dugu herrian, ospakizunarekin bat egiteko.

Lehenengo eta behin, liburuaren zatiak eta esaldiak topatu genituen, inspiratzaileak zirenak edo balio berezia zutenak. Ondoren, esaldiak erabiltzea kartel txikiak egin genituen eta horietan liburuaren titulua eta egilearen izena ere idatzi genituen. Azkenik, Derioko hainbat dendarekin eta establezimendurekin ipini ginen harremanetan, jakiteko ea ekimena ikusgai egiten lagundu nahi

ziguten, kartelak herritarrek ikusteko moduko lekuren batean jarrita.

Eguna biribiltzeko, Toti Martinez de Lezea idazlea hurbiletik ezagutzeko aukera izan genuen. Karisma paregabeko eta energia handi-handiko idazlea da eta obra sorta luzea idatzi du. Berari egindako elkarrizketa zein beste batzuk SoundCloud plataforman daude entzungai; gainera, egunenetan, 14:00etan, eta zapatuetan, 15:00etan, Irola Irratian (107.5) entzun ahal diguzue.

Lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkiegu Liburuaren Eguna ospatzen laguntzen ziguten guztiei, eta kartelak irakurri eta zerbait sentitu zuten guztiei. Baita Toti Martinez de Lezeari, bere denbora oso modu esku-zabalean eskaini zigulako.

# Lezamako udaletxe eta eskola zaharren inaugurazioa

t: Raul Bañuelos

11914ko apirilaren 26an, Titanic ontzia hondoratu eta bi urte eskasera, Euskal Selektzioaren debutarekin batera, ofizialki inauguratu ziren Lezamako udaletxe eta eskola zaharrak. Fidel Iturria arkitektoak diseinatu zuen eraikina. Horrek hiru gorputz zituen: erdikoan udal-bulegoak eta bilkura-gela atondu ziren, eta alboetako eraikinetan, neskontzako eta mutilentzako ikasgelak.

Obraren aurrekontua 30.500 pezetakoa izan zen, eta diru-ekarpena hauek egin zuten: Hilario Astorki jaunak (5.000 pezeta), Lezama Leguizamon anaiek (5.000 pezeta), Torreko markesaren alargunak (2.000 pezeta), Juan Cipriano de Ereño jaunak (1.000 pezeta), Antonio Carlevaris jaunak (100 pezeta), Felipe Astorkiren alargunak (200 pezeta) eta Dominga Astorki andreak (200 pezeta). Beste pertsona eskuzabal batzuek ere diru-ekarpena egin zuten eta guztira 18.000 pezeta eman ziren udaletxea eta eskolak eraikitzeko. Obrak Vicente Arteaga alkatearen agintaldian hasi ziren, eta Mateo Llodio buru zela amaitu. Kontratista Juan Ormaetxe Hermanos y Compañía izan zen.



Inaugurazio-ekitaldian, Don Ceferino abadeak meza solemnea eman zuen goizeko 10:00etan, 32 ahotsek osatutako abesbatza batek lagunduta eta Galdakaoko banda bateko zuzendariak orkestratuta. Ereserki nazionala abestu zen amaieran, eta su artifizialak jaurti ziren. Jarraian, gurutze bat zeramaten bi lagun-tzailek lagunduta, apaiza eraikin berrira abiatu zen eta hango lokalak bedekatu zituen. Hitzaldi laburra eta zentzuduna bota zien bertaratutako hurrei, eta pastak oparitu.



Ekitaldia Galdakaoko Batzokiko musika-bandak girotu zuen, eta dantzaldia egin zen plazan bazkaltzeko ordura arte. Euskal dantzak (ezpata-dantza) eta aurrekoa dantzatu zituzten dantzariak ere izan ziren plazan. Udalak inaugurazio-ekitaldira gonbidatu zituen apaiza, gainerako agintariak eta dohaintzak egin zituztenak, azken horiei udalaren lokal berria eraikitzen inongo interes barik lagundu izana eskertzeko.

Gonbidatuek menu gozoa dastatu zuten udaletxeko ekitaldi aretoan: era askotako zizka-mizkak, paella Valentziar erara, azpizuna Bretoi erara, legatza Bilboko erara, oilo-kroketak, oilasko errea letxugarekin, postreak, banilla-izozkia, pastak, gaztak eta frutak, kafea, likoreak eta zigarroak. Menua Morro Negro jatetxeko sukaldearen eskaintza izan zen.

Eta topa egiteko, xanpaina. Bazkalondoak bidea eman zion erromeriari eta horrek arratsalde osoa iraun zuen. Egun ahaztezina haientzako guztientzako! Mende bat beranduago halakorik ezin ospatu...



**ADARVE KAFETEGIA**  
Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA  
Sallube, 2 DERIO      Tel: 94 608 95 31

**izpilen**  
PARAFARMACIA • BELAR DENDA  
Sabino Arana, 3 Itonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)  
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

**elekma**  
LARRAZTEREN BAI OLTEN ITZETRESNA ELEKTROKO BERRAK  
TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTROKO TRESNA  
leherengo markak • Piztorki onenak  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**  
Tasariari etorbidea, 25 3 N • 48180 Iruia  
T: 946 539 232  
www.elekma.es

# Eman euskarri bat eta mundua mugituko dut, Arkimedesek

Eman euskarria eta euskara mugituko dut.

t: Juan Luis Goikoetxea

Zein da, baina, Arkimedesen palankaren legeko euskarria? Euskaldunok lehian ari gara oinarri horren bila. Batzuek -teknologia digitalen loraldian- makinaren mekanikaz fidatzen dira, izan ere, Interneten laguntza da gaur egun Arkimedesen palanka. Beste batzuek, oster, joera tradizionalakoak, militantzia ipintzen dute palanka moduan; euskaltzale izatea; euskararekin harro sentitzea; makinaren aurrean, humanismoa.

Jakina da teknika hobetzea, baliabide gehiago jartzea, behar beharrezkoa dena, batez ere, tabletak, sare sozialak eta telebista azkar aldatuz doazenean. Horretarako dira Soziolinguistika Klusterra nahiz euskararako erakundeak. Hala ere, gaurko elebitasun desorekatuan, nik neuk ezinbestekotzat joko nuke euskaltzalea, euskararen aldeko jokalaria, kulturen ondo jantzia, aintzat hartzea.

Blaise Pascal-ek -filosofo, matematikari, fisikari eta idazleak- honela dio: "Pilotan jokatzenean, jokalaria biek pilota berberarekin jokatzenean, baina bata besteak baino hobeto kokatzen du pilota hori". Erdara eta euskara jokariak halaxe

ari dira pilotarekin, hau da, euskaldunarekin. Nork irabaziko du? Bada, euskalduna erosoan, atseginen, ondoen zaintzen duen pilotariak.

Euskararen eta erdaren arteko partida ez da inoiz amaituko, Sisiforen mitoan bezala gertatuko da. Sisifok harriztar bat maldan gora eramanean behar zuen, eta gailurrera heldu baino lehentxoago, harria gainbehera amiltzen zitzaion eta Sisifok

behin eta berriz hasi behar izaten zuen lanean.

Sasoi batzuetan, 22 tantotarako partidari, euskarak irabazten du; beste batzuetan, erdarak, ze berdinketarik ezin egin daiteke. Edonola ere, ez da gauza bera 22 eta 21eko emaitza edo 22 eta 2 irabaztea. Irakurle hori, jokatu eta irabazteko adorea bai? Txalo zaparradarako prest dituzu frontoiko euskaltzaleak.



**SUIT DELUX**

Ohea aldatzen dizugu,  
bizitza hobetzen dizugu

[www.suitdelux.com](http://www.suitdelux.com)

SHOWROOM BERRIA BILBOA Ledesma 32 | Tf. 944 145 875  
LEIOA Av. Iparragirre 80 | Tf. 944 316 516  
DERIO Seminarioa | Tf. 944 545 147

## Etxeko sukaldaritza

Bakailaoaren eta ziazerben  
entsalada epela

t: Maite Lekerika

**Osagaiak (lau lagunentzat):**

- 200 g ziazerba (garbituak)
- 320 g bakailao (izpitua eta gezatua)
- 40 g intxaur
- laranja bat (zuritua eta ataletan)
- oliba beltzak
- berakatz-atal bat

Gozagarria egiteko:

- 3 koilarakada oliba-olioa
- koilarakada bat laranja-ur

- koilarakada bat sagar-ozpin
- gatza

**Prestetako errea:**

Gozagarria egiteko beharrezkoak diren osagaiak nahastuko ditugu. Gozagarria gordeko dugu. Zartagin batean olio apur bat ipini, eta berakatz frijituko dugu. Bakailaoa gehituko dugu, buelta pare bat eman, eta aterako dugu. Entsaladarako azpil batean ziazerbak ipiniko ditugu, olibak, laranja-atalak, bakailaoa eta intxaurrak. Saltsa gainetik botako dugu, eta mahaira atera.

## Olo- eta platanopil txikiak

**Osagaiak:**

- 100 g olo-irina edo olo-malutak (oso-oso birrinduak)
- arrautza 2
- 2 platan (helduak)
- Legamia (sobre erdia)
- Olioa
- Kanela, ziropa, txokolatea...

Prestatzeko modua:

Ontzi batean arrautzak eta platanok (zurituak eta zatietan) ipiniko ditugu eta irabiagailuz irabiatuko dugu, harik eta nahasi homoginoa lortzen dugun arte. Beste ontzi batean oloa eta legamia nahasi, eta nahasia arrautza eta platanori botako diegu. Hagatxoak erabilia eragingo dugu, harik eta nahasi homoginoa egiten den arte. Zartagina sutan ipini, eta olio-tanta batzuk bota. Bero dagoenean, nahasi apur bat hartuko dugu, eta bota. Burbuilak ateratzen direnean, buelta eman, eta minutu batean izango dugu egiten. Opil txikia zartaginetik atera, eta kanela, ziropak, txokolateak... lagunduta jan ditzakegu.



hotela  
jaketxea  
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefona: 94 403 69 00  
Faxa: 94 403 69 01  
e-mail: hotel@aretxarte.com  
e-mail: reservas@aretxarte.com  
www.aretxarte.com



**PATXI**  
KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELVARTEA  
Nahastur galdugina | Euzkara 4.48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 522 587 | info@paxi.coop | www.paxi.coop



**IZ**

le-apaindegia  
estetika

Txinboxangorri, 2  
ZAMUDIO  
946 036 943



**Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.  
48150 Sondika  
Bizkaia

94 453 25 15  
94 453 39 31




**BIDE-GORRI**

ASKOTARIKO PINTXOAK - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WIFI gunea

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

## Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.  
a: www.ululataupe.com



## Gomendioak

### LITERATURA: NAGUSIAK

- Isiltasunaren ildoetan (Erein), Amaia Iturbide Mendinueta
- Urpean murgildu (Katakarak), Lidia Txukovskaia
- Malthusen ezinegon (Elkar), Aseeluzarraga Zarrabeitia
- Ez dakit zertaz ari zaren (Elkar), Ana Malagon Zaldua
- Doneaneko alaba (Alberdania), Juan Kruz Igerabide Sarasola
- Gogoan dut (Pamiela), Aritz Galarraga Lopetegi

### LITERATURA: UMEAK

- Afaltzera etorri ziren otsoak (Denonartean-Cenlit), Steve Smallman
- Onin mitologiaren lurraldean (Travel Bug), Ibon Martín
- Xomorro lapurra (Travel Bug), Irati Garmendia
- O! Soinuak egiten dituen liburua (Tarttalo), Hervé Tullet

## Sudokua

			7	8	9			
	2	9						3
		7						5
6			9	2	1			
			5					
3		1	8	6				
		3	6					
8			2					6
					1	5		

6	3	5	1	8	7	4	9	2
7	9	4	3	6	2	5	1	8
8	1	2	4	5	9	3	6	7
2	6	7	9	4	8	1	5	3
9	8	3	7	5	1	2	4	6
4	5	1	3	2	9	6	7	8
5	4	6	9	2	3	7	8	1
3	7	5	8	6	1	9	2	4
1	2	9	8	7	4	6	3	5

**JB** Construcciones-Reformas  
**IÑIGO BARCENA**  
Igeltserotza orokorra

Especializatea:  
Xafila-lanak  
Zoruak

944522910 - 665703312 - 652772018

**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburubata:  
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behe  
Zamudio  
**94 4520419**

**GALAISIA**  
Estetika eta ile-apaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Etegabeko ordutegia

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

## Hitzaldiak

### Larrabetzu

> "Ez da nire gorputza, zure begirada da" umeen eta gazteen transexualitateari buruz. Ekainaren 2an, 18:00etan, Gure Etxean. Naizen Euskal Herriko adingabe transexualen familien elkartearen eskutik. Izena emateko azken eguna: maiatzak 31 (944 558 271 edo liburutegia@larrabetzu.eus). Bidekoetxe parkean.

> Literaturaz Berbetan: Eneko Aizpuruaren *Bidasoan gora*. Ekainaren 17an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

## Hitzaldiak

### Zamudio

> Umeentzako tailer zientifikoa. Ekainaren 5ean, 11:00etan, Zamudiotorren. Izena ematea: 944 520 204 eta udalliburutegia@zamudio.eus.

## Ikuskizunak

### Zamudio

> Zinema. Ekainaren 11n, 20:00etan, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: ekainak 10.

### Larrabetzu

> *Tribiz, baserri galdue* antzezlan, Jon Ander Urrestiren eskutik. Maiatzaren 6an, 18:30ean, San Bartolome ermitan. Izena ematea: kulturbilgunea@gmail.com.

## Musika

### Larrabetzu

> Kontzertuak Hori Baien: Zitzada & Rlantz. Maiatzaren 27an, 18:30ean.

## Jaiak

### Larrabetzu

> San Antonio. Ekainaren 13an, Goikoelexalden.

> San Joan gaua. Ekainaren 23an.

## Kirola

### Zamudio

> Gazte-olinpiadak. Ekainaren 25ean, 19:00etan, plazan. Izena emateko azken eguna: ekainak 24, Gaztestazioan.

## Bestelakoak

### Zamudio

> "Nerabetasuna: krisi-garaia ala aldaketa ez onartua?" gazte-eztabaida. Ekainaren 4an, 20:00etan, Gaztestazioan.

> Uraren Eguna. Ekainaren 18an, 18:00etan, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: ekainak 17.

> Uda programa. Ekainaren 21etik uztailaren 23ra. Izena ematea: ekainaren 13a arte egin ahalko da, www.zamudio.eus webgunean, ADI Zamudio appeen edo frontoi ondoko lokalean.

> Uda gazte. Ekainaren 28an. Izena ematea: ekainaren 14tik 20ra arte, Gaztestazioan.

### Lezama

> Txakolinaren eguna urriaren 3an egingo da aurten, eta ekainaren 4an hura aurkeztuko da, 13:00etan, Kultura Aretoran.

**GAMINIZ**  
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio - Bizkaia  
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

[www.gaminiz.com](http://www.gaminiz.com)

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami suzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



**SANTI MAMI**  
ALBARTARITZA  
Elena Lombana (elk.553)  
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215  
10:00-14:00 / 16:00-19:00  
(hitzordue eskatu behar da)

**Nire Autoocasion NA**



**IMPORTAZIOA ETA SALMENTA**

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA  
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12  
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92  
[www.nireautoocasion.com](http://www.nireautoocasion.com) [info@nireautoocasion.com](mailto:info@nireautoocasion.com)

Arantza Amondarain Lasa  
Ginekologoa

Txartel estaldea: 9-4  
413 bulego  
48160 Derio

Telefonoa eta faxa:  
94 454 44 98  
[a.amondarain@euzkai.net](mailto:a.amondarain@euzkai.net)



- Plater konbinatuak  
- Ogitartekoak  
- Kaxolak

**BIZKARGI KAFETEGIA**  
Euskal Herria Kalea  
48160 - Derio (Bizkaia)  
94 454 16 55

**ELORRIETA**  
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behea Derio 48160  
94 454 03 86  
**639 57 98 48 - 639 58 25 47**

**ZURREGOITI**  
JATETXEA

Laurola etorbidea, 27  
48180 Lolu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
[restauranteaurregoiti.com](http://restauranteaurregoiti.com)



**tik tak**

EGUNEKO MENUA  
lehenengo platera  
bigarren platera  
postrea  
ogia  
edaria **9€**

**T: 94 454 55 55**  
Bestorene 5, Behea  
48160 DERIO

**aldekone**  
hartz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

**Anuska Prieto Aguilar**  
Odontologoa

Urbe 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zeharzu Bostak  
Logopedia  
Podologia  
Kiroprasajen

clinica dental **ZAINDUZ**  
hartz klinika

Txorierri etorbidea, 9 - Lorja | Arteaga eraikina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 94 45  
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

Hartz-klinika  
**IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hartz-estetika  
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370

Centro Dental  
**Txorierri**

**Rocío Astorkia Bordegaray**  
Col. nº 48000759

**Ainhoa Rodríguez Mella**  
Col. nº 48001337

**Igone Nieto Hernández**  
Col. nº 48001462

Mixine 7, behea - 48150 Sondika  
(geltoki aurrean)  
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885  
www.cdtxorierri.es

**ORTODONCIA21**

**Bizitzari  
irribarrez!**



euskara praktikoa

## **Txorierriko AEK**

**A1 ,A2, B1, B2, C1 MAILAK PRESTATZEKO  
IKASTARO TRINKOAK**

**Uztaila:**

**80 ordu:** 5etik 30era

Izen ematea: ekainaren 28ra arte

**Iraila:**

**80 ordu:** 3tik 30era

Izen ematea: uztailaren 16ra arte

**2020-21 ikasturtean euskaltegian  
B2 eta C1 maila aitortuta dutenentzat:**

**30 ordu:** 17tik 30era

Izen ematea: irailaren 13ra arte

**Dirulaguntzak eskuragarri**

Informazioa eta izena emateko:

Txepetxa euskaltegia

Gorbea kalea 5, behea-Derio

**94 454 39 67 · 607 59 87 94 · txepetxa@aek.eus**